

Kontzeju

www.dhaci.eus

f
Berriak
@berriakdhaci
Berriak
Berriak

Dhaciako Udak aldizkaria | 2018ko Ekaina | 262. zenbakia



era
erain
Debagoiena



ERABAKITZEN HASTEKO UNEA DA

16 urtetik gorako herritar guztiak daude deituta ekainaren 5eko Herri Galdeketa parte hartzera

Demokraziaren festa

» 16 urtetik gorako herritar guztiak daude deituta ekainaren 5eko herri galdeketa parte hartzera

Domekan hitzordu garrantzitsua dugu demokraziarekin. Erabakitzeko eskubidea gauzatzen hasteko herri galdeketa egingo da Oñatin eta eskualde osoan, Erain Debagoienak deituta. Ez da galdeketa loteslea, ez da ofiziala; baina, hala ere, inportantea da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea.

Erabakitzeko eskubidea dugula aldarrikatzeko aukera ederra da. Gure etorkizuna geuk erabaki nahi dugula erakusteko; gardentasun osoz, demokraziaren festa ospatuz. “Ez da inportantea baiezkoak edo ezezkoak irabazten duen. Hautetsontziak boto-paperez betetzea da garrantzitsuena. Horrela denok irabaziko dugu. Erabakitzen hasiak izango gara” adierazi du Erainek.

Debagoienean bezala, Goierriin, Azpeitian eta Ispasterren ere egingo da herri galdeketa ekainaren 5ean. Eta hurrengo bi urteetan beste hainbat herri eta eskualdetan ere egingo dira herri galdeketak. Eta bateko eta besteko borondateak batuz erakutsiko dugu herri honek erabaki egin nahi duela. Zenbat eta jende gehiagok parte hartuz, gero eta hurbilago egongo da helburua: guztion artean erabaki ahal izatea etorkizuna.



Baiezkoa ala ezezkoa, inportanteena da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea. Gure etorkizuna geuk erabaki nahi dugula erakutsi behar dugu, demokratikoki.

? Garrantzitsua iruditzen al zaizu herri galdeketa parte hartzea?

Gema Zabaleta
Ez naiz independentista baina erabakitzeko eskubidearen alde nago, printzipio demokratikoa delako, Auzitegi Konstituzionalak berak esan duen moduan. Ez da alderdi abertzaleen aldarrikapena soilik. Gizarteari galdetzea ona da, lagungarria baita arazoak konpontzeko. Sistema politikoa berritu egin behar dugu goitik behera, eta horretarako herritarrek hartu behar dute hitza. Beraz, inportantea da herri galdeketa parte hartzea. Gainera, eredu pozik eta gustura egin behar dugu.

Garbiñe Biurrin
Espainiar konstituzioak berak dio herritarrok eskubidea dugula gai publikoetan parte hartzeko eta parte hartze hori ezin dugu alderdi politikoen esku soilik utzi. Erabakitzeko eskubidearen alde nago, askatasun ariketa bat delako; erabakitzeak askeago egiten gaitu. Eta erabakitzeko eskubidea gauzatuko da erabakitzen; gure iritzia eta bozka emanez. Beraz, inportantea iruditzen zait herri galdeketa parte hartzea. Gainera, eredu izango zarete beste herri askorentzat.

Koldo Saratxaga
Oso interesgarriak eta beharrezkoak iruditzen zaizkit herri galdeketak. Eta, batez ere, horien inguruan egiten den lan pedagogikoa aldarrikatzen dut. Ahalegin berezia egin behar dugu gauzen zergatia azaltzeko, gauzei buruz hitz egiteko eta gauzak ulertzeko. Ez dakit zenbat jende etorriko den, baina pedagogia lan horretan insistitu behar da, jendeak ez dezan inertziaz botoa eman, baizik eta kontziente delako etorkizunerako gauza desberdin bat eraikitzen ari dela.

Bozka emateko lekuak

Herri galdeketa antolatzaileek nahiago izan dute udalaren jabetzakoak diren eraikin edo lokalak ez erabili, inpugnazioen arriskua ekiditeko. Beraz, ondoko argazkietan ikusten diren hiru lokal hauek egokituko dituzte herri galdeketa burutu ahal izateko. Gutxi gora behera geografikoki aukeratutako lokalak dira, herritarrei ahalik eta erraztasun gehien emate aldera, baina garbi utzi behar da herritarrok nahi dugun lokalean eman ahal izango dugula botoa (behin bakarrik, noski, bestela sistema informatikoak salatuko gaitu eta). Bozka emateko lokalak goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00ak arte egongo dira zabalik.



Garoa aretoa, Unibertsitate etorbideko 3an



Lehengo Urbia taberna, Errekaldeko 4an



Olakua 7ko behe oineko lokala

Bozka emateko lekuak goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00ak arte egongo dira zabalik. Herritarrek nahi duten bozka lekuan eman ahal izango dute botoa.

» Nola eman botoa

Herri galdeketa botoa eman ahal izateko, **nortasun agiria** (DNI) aurkeztu beharko da, eta Oñatiko helbidea agertu behar da bertan. Bestela, **errolda agiria** aurkeztu beharko da, udaletxean eskatuta. Galdeketa egunean bertan ere, udaletxea zabalik egongo da arratsalde, badaezpada, baina hobe errolda aurrez eskatzea, beharrezkoa bada. 16 urte beteta dituzten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute galdeketa. Baia atzerritarrek ere, baldin eta Oñatin erroldatuta badaude.

» Gardentasun bermea

Herri galdeketa gardentasun edo transparentzia osoz egiten dela bermatzeko, sistema informatiko bidez egongo da kontrola. Eskualdeko bozka-leku guztietako mahaiak konektatuta egongo dira, eta DNI zenbakiaren bidez bermatuko da pertsona bakoitzak behin bakarrik ematen duela bozka. Gainera, sei lagunez osatutako Jarraipen edo Kontrol Batzorde bat egongo da.

» Jai giroa

Herri galdeketa egunean hainbat ekitaldi egongo dira herrian zehar, argi nabaritu dadin demokraziaren festa ospatzen ari garela.

? Garrantzitsua iruditzen al zaizu herri galdeketa parte hartzea?



Jaume Lopez

Herri galdeketa herritarrek ahalduz ariketak dira, eta, gainera, herritarrek beraien antolatzen dutenez, balio ere

handiagoa dute. Nik Kataluniako herri galdeketa antolaketan parte hartu nuen eta oso arrakastatsuak izan ziren. Eta espero dut hemen ere hala izatea, eta gero eta gehiago antolatzea. Beraz, dei egiten diot jendeari parte hartzera, duen iritzia duela, baiezkoa edo ezezkoren gainetik, demokrazia gauzatzea baita garrantzitsua. Pertsonen iritzia balio duela ikustea.



Lourdes Idoiaga

Ni abertzalea naiz, eta alderdi abertzale bateko kide naizen heinean Erabakitze Eskubidearen aldekoa naiz, jakina.

Gure Aberria Euzkadi da.

Kontsulta egitearekin ados nago, baina, horrez gain, EAJ-PNVtik uste dugu beharrezkoa dela baita Legebiltzarrean erarabiatu dagoen Autogobernurako Ponenzia denon artean lantzea etorkizunerako herritarren kontsentsurik zabalena lortzeko.



Mikel Baiñ

Benetan txalotzekoa da Gure Esku Dago mugimenduak egiten diharduen lana. Herri honek batez ere ohiko alder-

dien arteko dinamiketarik haratago dauden herri mugimendu zabal eta kolore anitzak behar ditu. Bakoitza libre da bere herria norbere erarara amesteko. Nik euskal estatu independente bat amesten dut. Oraingo honetan, amestu ezezik, aukera izango dugu galdera konkretu bati erantzun bat emateko. Beraz, animatu eta Ekainak 5ean erantzun galderari!!!

ATZEKO KALE

oinezkoentzat oso osorik

Hasi dira Atzeko Kaleko beheko aldea (Ramon Irizarretik Foruen enparantzaraino) oinbideratzeko lanak. Alondiga, Kirrin eta Ibarrondoneko kantoiak ere berrituko dituzte. Iraileko lehen erdirako amaituko dituzte lanak

Aste honetan hasi dira Atzeko Kaleko beheko aldea (Ramon Irizar kaleko bidegurutzetik enparantzaraino) oinezkoentzat egokitzeko lanak.

Atzeko Kalea ez ezik, Kale Barriarekin lotzen duten hiru kale-kantoiak ere (Ibarrondo, Kirrin eta udaletxe atzealdeko alondiga) egokitu dituzte.



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale berrak 8 - 20540 otati
www.sanmiguel.com



EGUR-LAN
AROSZTEGIA
UNIBARNAI S.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 - unibarnaia@gmail.com
www.egur-lan.es

Atzeko Kaleko goialdean bezala, plataforma bakarra egokituko dute kale osoan, espaloia eta galtzada altura berean dituen. Hormigoi armatuko zoladura jarriko dute galtzadan, eta *Ecogranic* lauzak espaloian. Baina udaletxe alboko kale zatian eta alondigan material nobleagoa erabiliko dute (adokina galtzadan eta granitozko lauzak espaloian) Kale Barrian bezala, udaletxe inguruari batasun estetiko emateko.

ZERBITZUEN AZPIEGITURAK
Kalea berritzearekin batera, azpitik doazen zerbitzuetako azpiegiturak ere berrituko dituzte. Hala, ur-hornidura eta saneamendurako hodi bana sartuko dute, eta telekomunikazioetarako nahiz argiteria publikorako kanalizazio berriak ere bai.

Gabika Excavaciones enpresak egingo ditu lanak 239.122 eurotan (BEZ kanpo). Ustekaberik ez bada, iraileko lehen

erdirako amaituko dituzte.

OINEZKOEK LEHENTASUNA

Partehartze prozesu baten ondoren udalak 2014an onartu zuen Mugikortasun Planaren baitan kokatu behar dugu Atzeko Kaleko obra. Kaleak berritu beharra dauka, espaloiak estuak direlako eta, gainera, egoera txarrean daudelako, baita galtzadako asfaltoa ere.

Baina helburu nagusia oinezkoentzako guneak irabaztea da, ibiltzeko gune atseginak sortuz eta oinezkoen segurtasuna areagotuz. Ezin dugu ahaztu, Atzeko Kaletik behera datozen ibilgailuek Kale Barriako oinezkoen gunea gurutzatzen dutela, arrisku uneak sortuz.

Atzeko Kale oinezkoentzat egokitzeko lanak bukatu ostean, udalak mugatu egingo du kale horretako trafikoa. Aukera ezberdinak aztertu ondoren, datozen egunetan erabakiko du zein sistema erabiliko duen kalea ixteko eta ordutegia.



Trafiko aldaketak obra garaian

Obra dirauen bitartean itxita egongo da Atzeko Kale. Beraz, Kale Barrian zamaketa lanak egiteko, Portu Kalen eskumara biratuta egongo da bertara sartzeko aukera (9:00-12:00), goiko irudian marra txuriak adierazten duen moduan. Beraz, Euskadiko Kutxa aurrean debekatuta egongo da aparkatzea, obra amaitu arte. Gerriko kantoian garajea duten bizilagunei piboteetako giltza utziko zaie. Ramon Irizar kaleko aparkaleku batzuk (Makalean elkarte aurrean) erreserbatu egingo dira zamalanak egiteko. Bestalde, Arantzazuko Ama kaleko piboteak jeitsi egingo dira ohi bezala (9:00-12:00) zamalanak egiteko, baina Boga tabernatik aurrera ezingo da jarraitu.





SAN MARTINEN
1. fasea martxan

italde

Ramon Irizar kalea 2
T. 943 78 27 07
www.italde.com

3 logela 186.000, €-tik (± 117%)
KOKAPEN ONENEAN !!

Oñatiarrak bakailao arrantzan Labradorren eta Ternuan

Teodoro Bilbatuak eta Angel Egañak bina kanpaina egin zituzten PYSBE konpañiarekin 1950eko hamarkadan. “Bizimodu oso gogorra” zela aitortu digute biek.

Duela hilabete Selma Huxley ikerlari ingeles-kanadiarraren bisita izan genuen, udalak egin zion omenaldiaren harira. Huxley andereak XVI. mendean Kanadako ekialdean (Ternuan eta Labradorren) eogn zen euskal bale-industria deskubritu zuen. Omenaldiaren hasieran Jerardo Elortza historialari oñatiarrak bertso hunkigarri batzuk irakurri zituen. XVI. mendean ipar-atlantikora joandako Lapurdiko arrantzale batzuenak ziren, beraien senideei bidalitakoak, eta langintza haren gogortasuna ageri agerian uzten dutenak. Hari horri tiraka, orain dela 60 urte urrutiko paraje hotz haietan bakailao arrantzan ibilitako bi oñatiarren testigantzak bildu nahi izan ditugu.



Angel Egaña



Teodoro Bilbatua

Teodoro Bilbatua eta Angel Egaña dira. Kinttuak biak. 91 urte beteko dituzte aurten, baina oso gogoan dute oraindik itsasoko bizimoduaren gogorra.

Garai hartan baina, orain dela 60 urte, diru iturria zen itsasoa, eta asmo horrekin eman zuten izena, bakoitzak bere aldetik, PYSBE (*Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España*) enpresan.

1927an sortutako konpañia hau estatu osoko armadore garantzitsuenetako bat izan zen ia bost hamarkadatan, eta motore ekonomiko inportantea izan zen Gipuzkoa osorako. Lantegi bana zeukan Pasai Donibanen eta Ferrolen, eta beste hamar agentzia Europa eta Ameriketako herrialde des-

berdinetan. Jende askori eman zien ogibidea, bai itsasoan eta baita lurrean ere.

BI KANPAINA

Enpresa berean, baina itsasontzi eta lan desberdinetan ibili ziren Teodoro eta Angel. Bina kanpaina egin zituzten, 1953-54an, Labrador eta Ternuako ur izoztuetan. Kanpaina bakoitza sei bat hilabetekoa izaten zen; uztailean irten eta Gabonetan etorri, eta berriz ere urte berritan ontziratu uztailerarte.

Zumarragako lagun batzuek gomendatuta sartu zen Teodoro PYSBEn, diru pittin bat

IPAR ATLANTIKOKO UR HOTZETAN EGITEN ZITUZTEN SEI HILEBETEKO KANPAINAK



irabazteko asmoz. Aurretik estraperloan ibilia zen Arabatik garia, patata eta bestelakoak ezkutuan ekartzen.

Deban sinatu zuen kontratua PYSBE konpañiaren historian famatua izan zen Eustakio Arrinda kapitainarekin, eta Ferrolen itsasoratu zen *Abrego* izeneko ontzian.

Angel Egañak Garay fabrikan ziharduen lanean, baina urtebeteko eszedentzia eskatu eta itsasoan proba egitea erabaki zuen, diru pittin bat irabazi eta mundua ikusteko asmoz. Ofizial mekanikoa zen eta Pasaiako portuan hasi zen lanean

barkuetako motor kontuak ikasten. Handik bi hilebetera itsasoratu zen Pasaian bertan *Tornado* ontzian ipar Atlantikora bidean.

Aurreneko aldia zen bientzat itsasoan, eta, jakina, gorriak ikusi zituzten lehen egunetan. “Mariauta konpletamente” dio Angelek; “Gorriño izeneko bat zan kapitaina, bizkaitarra, eta harek esaten nolan *‘txantxiku, gaizki ibili bihar dok!’*”. Baina, orujo edo *cognac* pittin bat edanda, edo bakoitzak ahal zuen eran, joan ziren, poliki poliki itsasora egiten.

BIZIMODU GOGORRA

Zuzen zuzenean Ternuako *Saint Jones* portura joaten ziren. Itsasontzia prestatu, jan-edanak ontziratu, eta arrantzan egitera irteten ziren. “Txarri-txuletak eta txarrankak toneladaka sartzen gittuan” gogoratzen du Teodorok.

Gero hiruzpalau hilabete ematen zituzten Labrador eta Groenlandia inguruko itsaso izoztuetan. Ontzia bakailoz bete arte.

Bizimodu gogorra zen. Oso gogorra. “Hamar grado zero azpittik ibiltzen giñanian ondo; epel samar. Baiña generalian 15° azpittik ibiltzen giñan, eta Groenlandian sartzen giñanian 40° eta 45° inguruan zeropetik”, gogoratzen du Angelek. “Sarian harrapotako bakaillauak kubiertan bota eta harrixa letxe urteten euen, gogor gogorak”.

Hotza bakarrik ez; behe-laino itxia, ekaitzak, haizeak, izotz-mendi edo *iceberg*-ak... Oso arriskutsua zen ur haietan

(Hurrengo orrira)

XVI-XVIII. MENDEETAN IPAR ATLANTIKOARA JOANDAKO EUSKAL ARRANTZALEEN POEMAK

XVI eta XVIII. mendeen artean Ternuara joaten ziren marinel eta arrantzale euskaldunen kezak, beldurrak, arriskuak, lanak, nekeak eta bizipenak era zoragarrian azaltzen dizkigute Baionako Euskal Museoa gordetzen diren hiru poema luzek: ***Partiada tristea Ternuara*** du izenburutzat lehenak, ***Itsasoko perillak*** bigarrenak eta ***Ternuako penak*** hirugarrenak. Guztira 53 ahapaldi dira eta hona hemen horien lagintxo batzuk.

Hemendik Ameriketara zihoan marinelak maitasun-gorrotoko harremana zuen itsasoarekin. Bizimodua itsasoak zion ziurtatzen, baina aldi berean izutu, ikaratu egiten zuen:

***Itsasoak nau bizitzen,
hark berak nau ni izitzen;
bizi laburra emanen,
gero berak eramanen.***

Euskal Herritik Ternuarako bidea arriskuz betetako itsasketa zen. Edozein momentutan sor zitekeen ekaitza eta, are okerragoa, ***furakana***, itsasontziak galzorian jar zezakeena. Begira zein trinko eta ozen erakusten digun ondorengo bertso honek:

***Furakanaren furia,
ifernuko iduria.
Satan beltzak darabila,
untzien galtzen dabila.***

Ternuara iritsita, lanean etengabe aritzen ziren marinelak. Ez zeukaten jai-egunik, ez inolako atsedunik, balearen harrapaketak edota bakailaoaren arrantzak hartara behartzen baitzituzten.

***Gau egunez lanez ase,
neurrimenduz beti gose;
galdu jateko astia,
loa dute garastia.***

***Ezin geldi, ari behar,
beti egun, beti bihar,
astelegun guzietan,
besta eta igandetan.***

Selma Huxley ikerlari eta adiskidearen laguntzari esker Baionan aurkitu genituen poema lapurtar hauek XVII. mendearen bukaerakoak edo XVIII.aren hasierakoak izan daitezke.

J. E.



MAPFRE
Oñati

Partu kale. 5
20660 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia

Oraín Oñatiarren zorhitzeak!

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

nabigatzea. “Gorrixak ikusitta gauz barkuan. Noiz ittoko!”, gogoratzen du Egañak. “Behin tifoia euki geben, izugarrixa. Tripulaziño dana salbamendu txalekua jantzitta, eta gu makiñatan lanian, jo ta sua, tifoia frentea egitten; izan be, tifoia etxako sekula bizkarra emun bihar, aurre egin bihar xako eta mozketan fan, harik eta pasau arte. Itsaso txarrak sarri izaten gittuan; 20 eta 24 metroko olatuak bebai. Gu han geuntzela, Noruegako barku bat hondoratu zan; fan giñan lagunketako asmotan, baiña alperrik”.

Egañak bi kanpaina egin zituen *Tornado*-an, eta hurrengo urtean Groenlandian hondoratu zen barkua *iceberg* bat jota.

LAN DESBERDINETAN

Egañak makinista lanak egiten zituen, motorrak koipeztatzen. Teodorok berriz gazitzaile edo saladore lanetan jardun zuen. “Barku barruan egoten giñan gu, goittik botaten oskuein bakaillaua deposito haundi batzutan antolaketan geben, gatzetan jarritta. Toneladak batzen gittuan. Luziak eta gogorrak izaten ziran lan egunak; 12 orduko txandak egitten gittuan, eta luziaguak be bai” gogoratzen du Teodorok.. “Bapebe arrain bariko egunak

be egoten ziran, eta halakotan mantenimendu lanak egitten gittuan barkuan”.

Gogortasun haren barruan, begiak gozatzeko aukera ere izaten zuten, jakina. “Eguzki egunak zoragarriak izaten ziran ikusteko” dio Egañak; “baliak inguruan geratu barik, eta barkutik urrin barik eh! Arrantzan gebitzela berriz, barku inguru dana hegatziz beteta egoten zan, bakaillauari moztutako burua berriz itsasora botaten geben eta”.

Bakoitza itsasontzi banatan ibili arren, Ternuako San Juan portura iritsitakoan elkarrekin egoteko aukera izaten zuten egun batzutan. “*Petit Cabaret* eta antzekuak egoten ziran, baiña dirua falta. Kanadako dolarra 42 pezetatan eguen orduan”.

18.000 PEZETA

Kanpaina batean 1.800 tona bakailao eta 200 tona olio (gibelarekin egindakoa) ekarri zutela gogoratzen du Teodorok, Hona iritsitakoan, kargamentu horren portzentai bat jasotzen zuen tripulazioak. “Nik goguan dakot, hango gastuak kenduta, 18.000 pezeta aurreratu nebela kanpaina batian” dio Teodorok. Dirua zan, orduan, baiña..”.

Dirua zen, bai, baina ez halako lan gogor bati dagokion



👤 Kanpaina baten 1.800 tona bakailau eta 200 tona olixo ekarri gittuan. Gastuak kenduta 18.000 pezeta aurreratu nittuan”



👤 Gorrixak ikusitta gauz barkuan. Noiz ittoko! Behin tifoia euki geben, izugarrixa ”

bestekoa. Teodorok eta Angelek bina kanpaina egin zituzten, esan bezala. “Kantzau egin nintzan” dio Teodorok, “eta lehorrera bueltaittia erabagi neben, *a donde pisa buey*”. Gero Eibarko Sarasketa enpresan eman zituen hainbat urte eskopetendako kulatak egiten.

Egañak itsasoan jarraitu zuen beste hamar hilabetez, baina karga-ontzi batean. “*Sota y Aznar* konpañiako *Monte Alberdi* barkuan ibilli nintzan makinista. Pasaje eta karga barkua zan eta gehixenian Europa aldiari ibiltten giñan, Frantzia, Alemania, Italia eta, tarteka, Afrikako kostaldera bebai. Honeik pasuak izaten ziran bestien aldiari; ezkeben itsaso txarrik eukitten”.

EULOGIO URIARTE

Hirugarren oñatiar bat ere ibili zen bakailao arrantzan. Eulogio Uriarte zen bera. Teodoro eta Angel baino lehenago hasi zen, eta lau bat kanpaina egin zituen PYSBE konpainiarekin.

Teodorok bezala, gazitzaile edo saladore lanak egiten zituen, baina azken bidaian gaixotu egin zen, eta Ternuan hainbat egun ospitalean egin ondoren, hegazkinez ekarri behar izan zuten Madrilerla.



UDAKO EGA IKASTAROA - 2016 UDAL EUSKALTEGIAN

Ekainaren 27tik uztailaren 15era eta irailaren 1etik 23ra.

Goizeko 9:00etatik 13:30era
124 ordu

Matrikula epea: ekainaren 1etik 24ra.

Harremanetarako bideak:

tel.: 943782496;

e-posta: euskaltegia@onati.eus

Prezioa: 172,50€

SAN MARTIN GUNEAN

Eraikitzen hasita!



Informazioa: 689 420 761

egaratur
Construcciones | Eraikuntza Lanak

Argazkia: Nafarroako Argazki Zerbitzua

Guk egin dugu gure aukera,
ELKAR HEZI



Zeurea egin dezakezu
ORAIN

ELKAR HEZI
MAHUR HEZKUNTZA (0-6) ETA LEHEN HEZKUNTZA: Arantzazu kalea 10, 48943 715372 www.elkarhezi.eus
DBH eta Batxil: Santa Marina plaza 2, 48943 943718272
Bakarrik edo bistak egiteko edota informazio gehiagorako deitu 943718272 telefonara.



MIRENTXIN



IBON UGARTE eta IBAN MARTÍNEZ / Oñatiko Mirentxin Gidariak

“Elkartasuna emateko modu bat da”

Azken bidaia izan dadila lelopean Furgoneta Martxa egin zen maiatzaren 7an, *Mirentxin Gidariak* elkarteak antolatuta, euskal presoan dispersioaren amaiera exijitzeko. Tamalez, ez dirudi berehala amaituko denik sakabanaketa, eta Mirentxin taldekoek errepidean jarraitu beharko dute, astero milaka kilometro eginez, senideak Espainia eta Frantziako espetxetara gerturatzen.

Duela hamasei urte sortu zen Mirentxin Gidariak ekimena. Mirentxin Aurrekoetxea zenak Algecirasen zeukan senarra preso, eta ikustera joateko modurik ez zeukanez, lagun batzuk hasi ziren espetxera eramaten. Poliki poliki sare moduko bat osatzen joan zen, antzeko egoera zeuden beste senide askori laguntzeko asmoz.

Oñatin orain dela bost urte eratu zen Mirentxin taldea, Iban Martínez eta Ibon Ugarteren eskutik. “Nik senide moduan ezagutu nuen Mirentxin” dio Ibonek, “eta neuk ere horretan lagundu nahi nuela erabaki

nuen. Hala, Gasteizko taldearekin harremanetan jarri, eta gidari lanetan laguntzeko prest geundela esan genien. Pare bat bidaia egin ostean, Oñatin talde berria sortzeko proposamena egin ziguten, eta halaxe hasi ginen, hilean bidaia bat egiten. Gero, gidari lanetan laguntzeko prest zegoen kide kopurua handitu ahala, bidaia gehiago egiten hasi ginen”.

HAMABOSTERO BIDAIA

Gaur egun, hamabostero bidaia bat koordinatzen du Oñatiko Mirentxinek. “Gidari lanak egiteko bolondres talde zabala daukagu, bai Oñatin eta baita eskualdeko beste herri batzuetan ere, eta horri esker, gutako bakoitzak urtean bidaia bat edo bi egiten du gehienez. Inor erre barik” azaldu digu Ibanek.

Aurreneko lau urteetan

HAMABOSTERO MURTZIAKO JOAN-ETORRIA (2.000 KM. INGURU) EGITEN DITU OÑATIKO MIRENTXIN GIDARI TALDEKO FURGONETAK

Lyon-era (Frantzia) bueltaka ibili dira Oñatiko Mirentxin taldekoak. Aurten Murtziara joaten hasi dira, eta beharra dagoenean, bigarren furgoneta bat ere jartzen dugu Huelvara edo Cordobara joateko.

2.000 kilometro inguru bidaia bakoitzeko. “Ostiral iluntzean irteten gara. Bi gidari eta zazpi senide, gehienez, joaten gara. Goizaldean Murtziara iritsi eta senideak bisita egitera joaten diren bitartean, hostal batera joaten gara gu lo pittin bat egitera” azaldu digu Ibonek.

“Txarrena da, ordutegiakin ere zigortu nahi izaten dituztela senideak; hala, bati goizeko 9etan jartzen diote bisita, eta beste bati arratsaldeko 6etan, eta, jakina, senideek ordu asko pasa behar izaten dituzte zain, alperrik”.


Bisitak amaitu ostean berriz ere furgonetan sartu



“**Dispertsio politikaren ondorio lazgarriak arintzea da gure helburua; astebururo milaka kilometro egitera behartuta dauden senideei laguntzea, bidaia lasaiago egiteko aukera eskainiz eta istripu arriskua murriztuz**”

27 urte urrunduta eta sakabanatuta

27 urte bete dira dispertsio politika modu sistematikoa eta orokorrean aplikatzen hasi zenetik euskal preso eta hauen senideen aurkako salbuespenezko politika gisa. Gaur egun espetxean dauden 400 inguru euskal presoetatik 5 bakarrik daude Euskal Herriko gartzeletan. Urte hauetan zehar 16 senide hil dira eta beste hainbat zauritu errepidean izandako istripuetan.



eta igande goizaldera iristen dira Oñatira.

SUFRIMENDUA ARINDU

Gogorra eta astuna da hainbeste kilometro egitea, baina ilusio handiz egiten dute, Oñatiko Mirentxin taldeko arduradunek aitortu digutenez. “Elkartasuna emateko modu bat da, beste modu asko dauden bezalaxe (ostiralero elkartzuz, gutunak idatziz, ekonomikoki lagunduz...). Sakabanaketaren ondorio lazgarriak arintzea da gure helburua; astebururo milaka kilometro egitera behartuta dauden euskal preso senideei laguntzea, bidaia lasaiago egiteko aukera eskainiz, eta istripu arriskua ekidin edo, behintzat, murriztuz. Senideen aurpegietan ikusten dugun irriparrak asko betetzen zaitu eta berriro bueltatzeko gogoz etortzen gara. Azken batean, guk urtean bidaia bat edo bi egiten ditugu, baina senideek astero astero ibili behar dute bisitak antolatu eta gartzeletara bidaiatzen”.

“Normaltasun politikoaz hitz egiten dute askok” gaineratzen du Ibanek, “baina senideengana ez da normaltasun hori iritsi, eta astebururo milaka kilometro egiten jarraitu behar dute ordu eta erdiko bisitak egin

ahal izateko, horrek dakarren kostu ekonomiko, emozional eta psikologikoekin”.

GASTUAK GUTXITU

Senideek lasaiago bidaiatzea eta arriskuak gutxitzea da Mirentxinen helburua, esan bezala, eta baita ekonomikoa ere. Adibidez, Lyon-eko joan-etorria 300-400 euro kostatzen zitzaion senide bakoitzari, eta Mirentxinekin bidaiatuz berriz 110 euro inguru; Murtziako bidaiak 250 euro balio du, eta furgonetan joanda 85 eurotan ateratzen zaie senideei. Diru horrekin gasolina, autopistako bidesariak, eta gidarientzako ostatua ordaintzen da.

Gainerako gastuak (furgoneta erostea, matenua, matxurak, aseguroa...) Mirentxin taldeak hartzen ditu bere gain. “Urtean 100.000 kilometro inguru egiten ditugu eta, beraz, lau urtetik behin furgoneta berria erosi beharra dago” azaldu digu Ibanek. “Gastuei aurre egiteko dirua errifa eta txosnetatik ateratzen dugu, batez ere. Inoiz kontzerturen bat ere antolatu izan dugu”.

Kilometro adina bizipen eta istorio bizi izan dituzte bost urte hauetan zehar. Zorionez, ez dute istripurik izan. “Pare bat aldiz matxurak izan ditugu

Maidar Usandizaga



Aita bisitatzera Cordobara joaten gara Mirentxinekin, eta Badajozen egon zen hamar urteetan ere bai. Jaenen egon zen urteetan kotxez joan behar izaten genuen, eta oso gogorra zen; amak gau osoa eman behar izaten zuen gidatzen, horrek dakarren arriskuarekin. Mirentxin zerbitzua oso lagungarria da guretzat. Askoz ere lasaiago egiten dugu bidaia, eta beste pertsona batzuekin egiten dugunez, atsegina da. Eskerrik asko Mirentxini; kriston pisua kentzen digute.

bidaian, baina gainerakoan ez. Modu nahiko profesionalen egiten saiatzen gara. Gidariei atsedean hartuta joatea eskatzen diegu”.

ARAZOAK

Bestelako arazo batzuk izan dituzte, tarteka. “Sarri polizia etortzen zaigu ostatura, lotan gauden bitartean, dokumentazio eske, eta inoiz, harrikatu ere egin dituzte Mirentxinen furgonetak, ondorio larririk gabe, zorionez”.

Gaur egun Euskal Herriko herri eta eskualde ezberdinetan dauden Mirentxin taldeen 10 bat furgoneta ateratzen dira astebururo Euskal Herriko urrutien dauden Espainia eta Frantziako espetxeetara.

Hogeita zazpi urte bete dira dispertsio politika aplikatzen hasi zenetik eta, dagoneko, 16 heriotza eragin dituen. Zoritxarrez, ez dirudi berehalakoan amaituko denik eta, beraz, lanean jarraitu beharko dute Mirentxin taldeko gidariek sufrimendu erantsi horren ondorioak ahal den neurrian goxatzeko helburuarekin.

Arrazolatarren II. nazioarteko topaketa Oñatin egingo da

Hego Amerika, Belgika, Espainia eta Euskal Herriko 200 bat Arrazolatar elkartuko dira ekainaren 17, 18 eta 19an, abizenaren jatorriaren bila



Checatik Oñatira



Jose Ramon Arrazola
eta Javier Galarza,
Arrazolatarren
II. topaketaren
antolatzaile taldeko
kideak

Guadalajarako Checa herrian egin zuten Arrazolatarrek aurreneko topaketa orain dela bi urte. Izan ere, Checan oso zabalduta dago Arrazola abizena. Harritzekoa da, bai, baina Checara joaten bazarete, 'Lorenzo Arrazola' izeneko plaza bat aurkituko duzue, eta abizen bera duten beste establezimendu batzuk ere bai. Gaur egungo alkateak berak ere Arrazola du bigarren abizena, eta kanposantura joanez gero, hamarretik zazpi hilobitan Arrazola abizena ikusiko duzue.

Kontua da, XVI. mende hasieran Sancho de Arrazola izeneko oñatiar bat (datu hau oraindik dokumentatu gabe dago, baina badirudi Olabartakoa zela, Jose Ramon Arrazolak egindako ikerketen arabera) Checara joan zela hango burdinoletan lan egitera. Hiru seme-alaba izan zituen

eta, denborarekin, Arrazolatarren arrastoa handituz joan zen inguru haietan.

Eta hari horri tiraka, duela urte batzuk harremanetan jarri ziren Euskal Herriko eta Checako Arrazolatarrak, eta lehen topaketa egitea erabaki zuten Checan bertan. Belgikan dauden Arrazolatarren beste adar bateko ordezkariak ere bildu ziren, eta orain Oñatin elkartuko dira (ekainaren 17tik 19ra), harremanak sendotu eta abizenaren jatorriaren inguruan sakontzen jarraitzeko helburuarekin. Kolonia, Ingalaterra, Madrid, Bartzelona eta beste herri batzuetakoak ere batuko dira Oñatin.

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Abizenaren jatorria

Genealogia eta Heraldika liburu gehienetan Arrasaten kokatzen dute Arrazola abizenaren jatorria, Ferrerías kalean egon zen dorretxe batean, hain zuzen. Baina Jose Ramon Arrazola oñatiarraren ustez, datu hori ez da zuzena.

Jose Ramonek ia hogei darama Arrazola abizena aztertzen, hango eta hemengo artxiboetan arakatzen, eta bere ustez Atxondoko (Bizkaia) Arrazola auzoan (garai batean Elizatea) du jatorria abizenak. Berak dokumentatu ahal izan duenez, Arrazola auzotik Durangora eta beste herri batzuetara bizibide bila irtendako pertsonak hartu zuten abizen bezala Arrazola, sorterrinari kasu eginez, garai haietan ohitura zen moduan.

Eta Arrazola abizenarekin lotutako armari heraldikoa aztertzen badugu, zuhaitza eta bi otsoak agertzen dira; hau da, historian zehar Bizkaiako jaurreriaren ikurra izan dena. Beraz, horrek ere Bizkaiara garamatza argi eta garbi, Jose Ramon Arrazolaren ustez.

ARRAZOLATARRAK OÑATIN

1488an sute handi bat gertatu zen Oñatiko *Rúa Nueva*-n (Kale Barria) eta orduko udalak egindako zentsu baten arabera, garai hartarako Arrazolatarrak 14 etxe zeuden Oñatin, horietako 4 Olabarrietan. Beraz, pentsa liteke 1350 urte ingururako bazirela Arrazolatarrak Oñatin, eta Olabarrietan eraiki zutela oinetxea, gerora hirutan banatu zena: Arrazola Garaikua, Arrazola Azpikua eta Resusta (gaur egungo Errosta).

Hain zuzen ere Resusta etxekoa izango zen XVI. mende hasieran Checara joan zen Sancho de Arrazola, Jose Ramonek uste duenez. Oraindik ez du dokumentu bidez egiaztatu, baina garai hartako dokumentuetan agiri da Sancho de Resusta izeneko gizon bat (garai hartan ohikoa zen baserriko izena eta abizena nahastea) dagokion senipartea edo legitima eskatzen diona bere anaiari, Oñatitik kanpora doalako, eta Jose Ramonen ustez, hori berori da Checara joan zen Sancho de Arrazola. Garai hartan, Checa inguruko meategiak eta burdinolak modernizatu nahi izan zituen Espainiako erregeak, eta horretara joan ziren euskal herritar asko, tartean Sancho de Arrazola.

Lehen esan dugun moduan, Arrazolatarrak arrasto luzea utzi zuten Checan, baina ez han bakarrik; Belgikan ere bada beste adar sendo bat, Olabarrietako Arrazola Azpikuan jatorria duena, eta Hego Amerikan (Kolonbian eta Mexikon batez ere) Arrazolar asko daude, Olabarrietako Resusta etxean jatorria dutenak.

Atxondoko Arrazola auzoan du jatorria Arrazola abizenak

Badirudi XIV. mende hasieran iritsi zirela Arrazolatarrak Oñatira

Olabarrietan jatorria duten Arrazolar adar inportanteak daude Checan (Guadalajara), Belgikan eta Hego Amerikan (Mexiko, Kolonia...)

Gaur egun 14.500 inguru Arrazola daude munduan, eta horietako 4.500 Mexikon

Arrazolar ospetsuak



Arrazolatarraren artean pertsona ilustre ugari dago historian zehar, baina goiko argazkian agiri den Lorenzo Arrazola y García (Checa, 1795 - Madril, 1873) izan zen ospetsuena. Valladolideko Unibertsitateko Zuzenbide katedraduna, diputatua, senataria, Auzitegi Goreneko presidentea, eta Espainiako gobernuko buru ere izan zen hilabete eta erdiz.

Abizenaren etimologia

Arrazola abizenaren etimologia edo esanahiari dagokionez, 'Harri ugari dagoen lekua' esan nahi du, 'Arri', 'az' (ugaritasuna) eta 'ola' (lekua) osagaiek aditzera ematen dutenez.

Liburua

Arrazolatarrak Oñatin egingo duten topaketaren baitan, *Sobre los Arrázola. Apuntes de Genealogía y Heráldica* liburua aurkeztuko du Jose Ramon Arrazola oñatiarrak. Abizenaren jatorriaren inguruan egindako ikerketak eta aurkitutako dokumentuak, armariari buruzko azalpenak, eta Olabarrietatik irtendako Arrazolatarraren adar ezberdinetako zuhaitz genealogikoak biltzen ditu, besteak beste.

caravanas  oñate



• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zehazketa, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zehazketa, 25 • Tel.: 943 78 85 65
Atzeko kale, 32 (erakusketak)

Mugikortasun eko-soziala bultzatu nahi du Udalak



Pertsona bat kontratatu du Udalak sei hilabeterako, auto elektrikoak erabiliz negozio aukera berrien sorrera aztertzeko

Mugikortasun jasagarria sustatzea da Udalaren helburuetako bat, eta oraingo honetan urrats berri bat eman nahi du Fagor Ederlan taldeko *EderMobility Services* enpresa-rekin elkarlanean.

Mugikortasun elektrikoan oinarritutako proiektu eta zerbitzuetan espezializatutako enpresa da *EderMobility*, eta orain Oñati bezalako herri batean egon litezkeen negozio aukera berriak aztertu nahi ditu. Udalak oso begi onez ikusi du proposamena, era honetako proiektuak oso onuragarriak izan daitezkeelako herrirako,

bai ingurumenaren aldetik, bai ekonomikoki eta baita sozialki ere.

Beraz, Udalak pertsona bat (Iñaki Madinabeitia ingeniari eta fisikari oñatiarra) kontratatu du sei hilabeteako, Bidebarri Enplegu Zentroaren bitartez, azterlana egin dezan.

LOGISTIKARA ZUZENDUTA

Fagor Ederlan-en uste dute logistikan edo paketerian egon daitezkeela merkatu aukerak auto elektrikoentzat. “Gaur egun gero eta erosketa gehiago egiten dira Internetez (%20 hazten da urtero) eta banaketa

Era honetako proiektuak oso onuragarriak izan daitezke herrirako, bai arlo ekonomikoan, bai sozialean eta baita ingurumen aldetik ere

enpresa handiek arazoak izaten dituzte herrigunean banaketak egiteko orduan. Beraz, hor oso lagungarria gerta daitezke era honetako ibilgailuak, Oñatira mezularitza zerbitzu bidez iristen diren pakete guztiak miniplataforma logistiko batean batuz gero” uste du Madinabeitiak. “Eta berdin supermerkatuetako edo beste edozein dendetako paketeak banatzen, edo etxez-etxeko *catering* zerbitzuetan, adibidez”.

TURISMOA ETA GARRAIO SOZIALA

Turismo arloan ere aukera

ZERBITZU EDO NEGOTZIO AUKERAK: TURISMOA, GARRAIO SOZIALA, LOGISTIKA...



Turismoa. Bisita auto-gidatuak prestatu eta tablet baten bidez, ondareari eta zerbitzuei buruzko informazioa emateko aukera dago, besteak beste



Logistika eta paketeria. Mezularitza enpresa handiek arazoak izaten dituzte herri eta hiriguneetan banaketak egiteko orduan, eta hor oso lagungarriak izan daitezke goiko argazkietakoak bezalako auto elektrikoak. Baita supermerkatu eta dendetako paketeak banatzen, edo etxez-etxeko *catering* zerbitzuetan, adibidez. Ibilgailuaren atzeko kaxa neurria jartzeko aukera dago.

Azken kontainerra

► **Hermansoloña** taldeak azken laguntza kontainerra bidali du **Argentinara**. ► Hala ere materiala batzen jarraituko du, **Caritas**, **Nepal Lagunduz**, **Hotz-Oñati**, **Acesma...** bezalako taldeei laguntzeko

15 tona materialez (erropak, oinetakoak, liburuak, jostailuak, eskola materiala...) osatutako azken laguntza kontainerra bidali du **Hermansoloña** GKE-ak Argentinara.

Orain dela 15 urte hasi zen **Hermansoloña** taldea Oñatirekin anaituta dagoen Jose C. Paz herriko Euskal Etxearekin elkarlanean, eta orduz geroztik 35 laguntza kontainer bidali ditu. Baina azken urteotan gero eta oztopo burokratiko gehiago jartzen ari da Argentinako gobernu eta, azkenean, etsi egin dute.

Hermansoloñak eskerrak eman nahi dizkie Oñatiko herria, Udala, Ulma, Irizar, Orona, ikastetxeak, farmaziak eta modu batera edo bestera proiektu honetan lagundu duten pertsona eta erakunde guztiei.

BESTE PROIEKTUAK AURRERA

Kontainerrak bidaltzeaz gain, **Hermansoloña** taldeak beste hainbat elkartasun proiektu ere jarri ditu abian Argentinan (ikasketa bekak, tailerrak, aita eta amabitxi programak, jantokiak...) eta horiei guztiei eutsi egingo die.

Gainera, Bidebarrieta kaleko



Hermansoloña taldeko laguntzaileak kontainerra prestatzen

Argentinako aduanan dituzten arazoen ondorioz erabaki dute kontainerrak bidaltzeari uztea, baina bestelako elkartasun proiektuekin aurrera jarraituko dute

22an duen lokalean materiala batzen jarraituko du, **Caritas**, **Misio Taldea**, **Hotz-Oñati**, **Nepal Lagunduz**, **Acesma**, **Sahara**, **Mali**, **Haiti** eta sortuko diren beste elkartasun ekimen batzuei laguntzeko.

ULMA FUNDAZIOAREN LAGUNTZA SAHARARA

Ulma Fundazioak 2.000 kilo eskola-material batu du taldeko kooperatibetan egindako elkartasun kanpainen. Material hori guztia **Tindouf**-eko (Aljeria) kanpamendura eta, konkretuki, Oñatirekin anaituta dagoen **Gleibat El Fula** herrira bidali du, **Hermansoloña** taldeak lagunduta.

Nepalerako erropa bilketa kanpaina



Oñatiko 'Nepal Lagunduz'-ek eta **Mendiak eta Herriak** mendi-gidari taldeak antolatuta, **Elkartasun Trekina** abiatuko da Nepalera irailaren 23an, iazko lurrikarak kalteturako herriak ezagutu eta Everest inguruko bailara zoragarrietan ibiltzeko amsoz. Hamabi lagunek parte hartuko dute trekinan (oraindik badago lekua) eta hori aprobetxatuz, **Elkartasun Karabana** antolatzen hasi dira; 12 garraiatzaile kontratatuko dituzte, eta horiei esker 300 kilo material (erropak, oinetakoak, botikak...) eraman ahal izango dituzte.

Batez ere umeentzako (3-14 urte) erropak batu nahi dira, baina baita helduentzat ere. Lagundu nahi duenak Turismo Bulegora eraman ditzala erropak.

IKASTOLAN 2.000 EURO

Txantxiku ikastola ere Nepal Lagunduz taldeko kide da, eta azken aste hauetan egindako ekintzen bidez (zozketak, kamiseta salmenta...) 2.000€ batu dituzte Nepalera bidaltzeko.

ANE MERTZERIA

- Jostako zarak
- Lantzeria
- Umsoen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
 Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



TXANTXIKU
IKASTOLA

Guraso eta tutoreen arteko bilerak

2016/2017 ikasturtea

EKAINA						
A	A	A	O	L	I	
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Ekainaren 13an

0-1 urte

Ekainaren 14 eta 15ean

2 urte


Bilerak 18:00etan



Konfiantzaren
Pedagogia

**ELKARREKIN
IKASTEN**

UDALEKO BATZORDEAK



Euskara eta Hezkuntza

Xabier Zabaleta (Euskara teknikaria), Borja Moiua (EH Bildu), Nerea Zubia, batzordeko burua (EH Bildu), Amaia Erostarbe (EAJ) eta Iñaki Akizu (Hezkuntza teknikaria).

Uskararen ezagutza eta erabilera areagotzea, eta hezkuntza eredu propio baterantz urratsak ematea da udaleko Euskara eta Hezkuntza sailaren helburua. Ildo horretan, besteak beste, Herri Curriculumuma sortzea da datozen urteetarako erronka nagusietako bat. Nerea Zubia batzordeko burua eman dizkigu xehetasunak.

‘Herri Curriculumuma’ da agintaldi honetarako esku artean duzun egitasmo nagusietako bat. Zer da, zehazki, Herri Curriculumuma, eta zertan dago?

Oñatiko Kultur Ondarea transmititzeko egitasmoa da Oñatiko Herri Curriculumuma, aldi berean herritartasuna

lantzea ere helburu duena. 2015etik hona egitasmoaren oinarriak definitzen aritu gara ikastetxeekin batera eta proiektua mamitzen hasteko garaia iritsi da.

Bi lerro nagusi ditu. Bata, material sorkuntza: hau da, belaunaldi berriek herriari buruz zer jakin beharko luketen zehaztu, eta ezagutza hori modu pedagogiko eta didaktikoan transmititzeko material didaktikoa sortu. Eta bigarrena, herritarren parte hartzea eta inplikazioa sustatzea curriculumaren osaketan.

Dimentsio handiko proiektua denez, aditu tal-

DATUA

509.090

euroko (%2,56)

aurrekontua du

Euskara-Hezkuntzak

de bat kontratatuko dugu prozesua garatzen laguntzeko, eta irailerako lanean hasia aurrekusten dugu. Azken emaitzak 4-5 urte barru izango ditugu, baina ibilbidea bera ikasketaprozesua izango da.

‘Eskolako Bidea’ proiektuan ere indar handia jartzen ari da Udala. Zein da helburua? Helburua da ikasleek eskolara egiten dituzten joan-etorriak modu iraunkor, aktibo, autonomo eta seguruan egitea.

Aurten egin dugun diagnostikoak diosku Oñatiko datuak onak direla, eskolara modu ez-motorizatuan (oinez, bizikletan edo patinetek) joa-

ten diren kopurua dexentekoa dela eta baita haurrek duten autonomia maila ere.

Hala ere, oraindik badago hobetzeko marjina eta bide horretan jarraituko dugu, ikastetxeekin eta gurasoekin elkarlanean, sentsibilizazio ekintzak burutuz, eta eskola inguruneak seguruago bilakatzeko neurriak hartuz (zebrabideak, espaloiak ...).

Oñatiko Nazioarteko Lege Soziologia Erakundearekin hitzarmen bat sinatu nahi duzue ikerketa beka bat abian jartzeko. Zein helbururekin? Udalak sostengua eman nahi dio Institutuak hogeita zazpi urteotan egin duen lanari; izan ere, horri esker Oñati erreferentzia da Zuzenbidearen Soziologia lantzen duten ikerlarientzat. Ildo horretan, 4.000 euroko ikerketa beka bat emango dugu urtero, Oñatiko herriari ekarpena egingo

HERRI CURRICULUMA

“Belaunaldi berriek Oñatiri buruz jakin beharrekoa zehaztu, eta hori modu pedagogiko eta didaktikoan transmititzeko materiala sortu nahi dugu”



NEREA ZUBIA | Euskara-Hezkuntza batzordeko burua

“ Oñatin euskararen ezagutza (%75) eta erabilera (%64) datuak ez dira txarrak, baina erlaxatzen ari ote garen sentrazioa daukat

dioten ikerketak laguntzeko.

Herri Eskolako ikasle kopuruak gora egin du nabarmen azken urteotan. Hori dela eta, inbertsio inportantea egiten ari da Udala Errekaldeko eskolan.

Eskola Publikoaren inbertsio eta mantenimendu gastuak udal-eskumenak dira. Eta azken urteotako matrikulazioaren gorakadaren eta urte askotan erakinean gutxi inbertitu izanaren ondorioz, esfortzu berezi bat egiten ari gara bertako ikasleak baldintza egokietan egon ahal izateko. Aurreko agintaldian, batez ere, leihoak eta kalefazio sistema berri genituen. Eta datozen

urteetan gelak berrantolatzeke obrak egin beharko ditugu.

Euskararen arloan, batez ere udaletxe barrura begira ari zarete lanean. Iaz ‘Bikain’ kalitate agiria eskuratu zuen Udalak, eta horrekin batera, langileen artean euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzen ari zarete

Udalak hizkuntza-politika aurrerakoa izan du aspalditik eta eredu izaten jarraitzea dagokigu. Horregatik, azken urteotan, bereziki, udalbarneko lan eta harreman hizkuntza euskera izateko neurriak hartzen zentratu gara: langileen formazioa, sentsibilizazio-ekimenak...

Gainerakoan, herri mailan, oro har, nola ikusten duzu euskararen egoera?

Azkenengo kale-neurketen arabera (2011), Oñatin euskararen ezagutza %75 inguruan zegoen eta erabilera %64an. Datuak ez dira txarrak eta horregatik “arnasgune” gisa identifikatzen gara. Hau da, esan genezake geurean hizkuntzak lasai hartzen duela arnasa, ohiko hizkuntza dela kalean, lagunartean, familian, lan-munduan...

Hala ere, erlaxatzen ari ote garen sentrazioa daukat. Beraz, herritarrei begirako hizkuntza-politika egiten jarraitu behar dugu aurreko agintaldian onartutako Plan Estrategikoa bide-orri gisa hartuta. Hona hemen azkenaldiko ekimen batzuk: gazteei zuzendutako hizkuntza-ohituen tailerra, euskara ikasteko doakotasunerako bidean hartutako neurriak, martxan jarri ditugun Berbalagun eta Auzoko moduko ekimenak...

Haur eta gazte etorkinei euskararekin laguntzeko ‘Bertakotze’ programa ere badauka udalak.

Bai, 2003-2004 ikasturtean martxan jarri zen “Euskera errefortzu programan” du abiapuntua. Orduetik hona egokitzen joan da eta gaur egun bertakotze programaren helburua haur/gazte etorri berriei Oñatin integratzen laguntzea da.

Integrazioa diogunean da lagun sareak eraikitzen laguntzea, euren garapen pertsonala ahalbidetuko duten jarduerak eskura jartzea (ludoteka, gaztelekuko kuboak, haur liburutegia, kirol taldeak, bertso eskola...), herritarren artean elkar-ezagutza (kultura, hizkuntza, erlijioa...) eta elkar aitortza sustatzea, topaketarako guneak eta uneak sortuz bizikidetzatza sustatze aldera. Beti ere, euskera izanik komunikazio eta kohesio hizkuntza, hizkuntza-aniztasuna aintzat hartuta, noski.



AMAIA EROSTARBE / EAJko ordezkaria Euskara-Hezkuntza batzordean

“ Hezkuntzan bi foro berri proposatzen ditugu: elkarbizitzarena eta ekintzaitza-sormenarena

Hezkuntza arloan ‘Herri Curriculumuma’ eta ‘Eskolako Bidea’ dira esku artean dituzuen proiektu nagusiak. Nola ikusten dituzu?

Lau hezkuntza-mahai daude (gurasoen formazioa, euskal kultura, mugikortasun jasangarria eta herri-curriculumuma), eta udalak eta hezkuntza-arloko eragileek hartzen dute parte; tamalez, ez da onartu EAJren ordezkariak.

Hezkuntza-mahai horietan sortutako egitasmoak dira, bai Eskola-bidea, bai Herri-curriculumuma. Eskola-bidearekin, eskolarako joan-etorriak egitean, bizikletaz, oinez edo patinetez joatea sustatu nahi da.

Errekalde Herri Eskola (Urgain) orain sei-zazpi urte hasi zen eskolara oinez joateko ekimena antolatzen kultura-astean; orain herriko beste ikastetxetara ere zabaldu da, eta oso pozgarria da. Herri-curriculumuma, berriz, herriko kultura-ondarearen berri jaso, eta eskoletan transmititzeko proiektua da. EAJk oso aldeko jarrera agertu du proiektu horren aurrean.

Hezkuntza arloan, bi foro gehiago antolatzea da EAJren proposamena, Oñati HERRI HEZITZAILEAREN EREDUA jomuga. Batetik, ume eta gaztetxoen artean elkarbizitza, harreman egokiak, bakearen

kultura, berdintasuna, kulturartekotasuna... sustatzeko. Bestetik, gaztetxoen artean ekintzaitza, sormena eta aintzindarien ezagutza sustatzeko.

Euskararen arloan, besteak beste, etorkinek euskara ikasteko programak indartu beharra dagoela diozue.

Hamar urte dira atzeritik etorritako umei euskararako bidea errazten hasi zela udala, EAJren ekimenenez. Batez ere ahozko komunikazioan trebatzeko saioak antolatu izan dira. Gure ustez orain beste urrats bat eman behar da, eta baliabide gehiago eskaini pro-

gramari: gero eta ikasle gehiago dago, eta beranduegi bukatzen dira saioak (20:00-etan). Halaber, urteetako eskarmetuek erakutsi digu Olako dorrea ez dela lekurik onena.

Bestalde, atzeritik etorritako gizon-emakume asko dago Oñatin edadekoak zaintzen eta ostalaritzan lanean batez ere. EAJren azken legealdian, herritarrok euskararen oinarriko mailaren jabe egiteko egitasmoa jarri zen abian diruz lagunduta eta haien lanarekin bateragarri eginda. Oso beharrezkoa da programa hori berreskuratzea.

Gainera, arduratuta gaude ume eta gaztetxo batzuek lagunekin gazteleaz jarduten dutelako. Ez dakigu zenbateko indarrez, eta datu objektiboak behar dira.

‘Bizipoz’ programaren lehen emaitzak



14 lagunek parte hartu dute Bizipoz programan

Zahartzaro aktiboa sustatzeko helburuarekin, udalak eta Enpresagintza fakultateko Want Junior enpresak antolatu duten Bizipoz programaren lehen emaitzak aurkeztu zituzten maiatzaren 20an. Bi hilabetez lanean jardun ondoren, lau proiektu jarri dituzte martxan: 1. **Oñatiko ongizatea**. (Plazako azokako eskaileretan heldulekuak jartzea eskatu eta lortu dute, eta San Prudentzioko geltokian komuna jartzea eskatu dute, eta Oñati-Donostia arteko zerbitzu zuzena); 2. **Pake Leku dinamika berriak** sortzeko taldea; 3. Bidaiazteko **ingeleza** ikasteko tailerra; 4. **Garapen pertsonala**. Izipiritua, burua eta sentimenduak lantzeko ekimena.

Bidaiazteko ingeleza ikasteko tailerrari buruzko informazio bilera ekainaren 6an Pake Leku, 16:30

JUBILATUEN ASTEA / EKAINAK 13 - 19

Herriko jubilatuen aste nagusia ospatuko da ekainaren 13tik 19ra. Pake Leku presidente Tomas Igartua eta presidenteorde Jesus Mari Mugarzak eman dizkigute azalpenak.

Zer moduzko osasuna du Pake Leku elkarteak?

Ona. Aktibitate mailan oso bizirik dago. Urtean zehar dozena bat ikastaro-tailer antolatzen ditugu (dantza, solfeo, bitxigintza, euskara, puntua, yoga, informatika memoria tailerra, pintura, irakurketa taldea, orratz lanak...) eta 130 bat lagunek parte hartzen dute.

Bestalde, *Aloña* abesbatza eta *Ikusi-Makusi* antzerki taldea ere baditugu. Hauek urtero zortzi bat emanaldi egiten dituzte, bakoitzak.

Hilero hitzaldi bana ere antolatzen dugu, eta jende asko etortzen da. Asteroko bingoa eta beste hainbat ekitaldi (udazkeneko eta udaberriko kultur asteak, ostegun gizona...) ere baditugu.

Bidaiak ere antolatzen ditugu (ekaina bukaeran Paris eta Londresera goaz). Pittin bat behera egin du bidaia kontuak, baina orokorra da; beste elkarte ba-

“Jubilatu gazteak erakartzea da erronka”



zuetan ere bai. Beharbada, izango da gaur egun jendeak aukera gehiago dituelako berekasa bidaiazteko.

Bestalde, ikastolako gazte talde batekin elkarlan interesgarria egiten ari gara. Beraiek teknologia berriak (mugikorak...) erabiltzen irakasten digute, eta guk lehenagoko kontuak eta herriko historia eta ondareari buruzko azalpenak ematen dizkiegu.

Zein dira etorkizuneko erronkak?

Aktibitate berriak martxan jartzea gustatuko litzaiguke, baina jende gaztea eta ideia berriak behar ditugu. Beraz, gure erronka nagusia horixe da, alegia, jubilatuzko gazteak elkartera batzea, arnas berria

emateko elkarteari.

Barne funtzionamenduari dagokionez, batzorde iraunkor bat sortu nahi dugu, elkarteko estatutuak, barne araudiak eta bestelako gai batzuk eguneratu eta behar bezala antolatzeko.

Azpiegitura mailan ondo al zaudete?

Bai. Laister igogailu berria jarriko digu Udalak, eta, oro har, gustora gaude. Kanpoko terrazari etekin gehiago atara ahal izatea interesgarria litzateke, baina zaila da.

Mezurik?

Jubilatu gazteei dei egiten diegu elkarteko kide egin daitezen. Oso giro ona dago gure artean eta denon artean gauza politak egin daitezke.

EGITARUA

Ekainak 13, astelehena

Kontzertua: Umore Ona (Ordizia) eta Aloña (Pake Leku) abesbatzak. Santa Ana aretoan, 18:00

Ekainak 14, asteartea

Hitzaldiak: ‘Ictus’. Hizlaria: Sagarzazu medikua. Santa Ana aretoan, 17:30.

Ekainak 15, asteazkena

Ibilaldia Ugarkalde inguruetan. Hamarretakoa eta dantzaldia. Irteera Pake Leku, 09:00

Ekainak 16, osteguna

Bingo berezia opari zozketarekin. Pake Leku, 17:00.

Ekainak 17, ostirala

Txokolatea eta opila Pake Leku, 17:30. Ondoren kantaldia eta dantzaldia.

Ekainak 19, igandea JUBILATUEN EGUNA

Meza nagusia parrokan (12:00) eta ondoren herriko nagusiei omenaldia Zubiko kiroldegian. Musika banda, Oñatz dantza taldea eta bertsolariak. Ondoren bazkari herrikoa, dantzaldia eta zozketak.

1976an desagertu eta hildako *Txirrita* etakideari buruzko liburua idatzi du Ander Lizarralde



Ander Lizarralde, txostenaren egilea, 'Txirrita'-ren komandokide ziren Eugenio Talavera 'Tala' eta Gregorio Garitaonandia 'Borda'ekin.

Argiaren webgunean (www.argia.eus) eskura daiteke liburua doan pdf formatuan

Joxe Bernardo Bidaola *Txirrita* etakide tolosarraren desagertzea eta heriotza ikertzen dituen liburua idatzi du Ander Lizarralde oñatiarrak. Aurrerago argitaratuko duen beste liburu mardulago baten atal bat da (31 orrialdeko txostena), orain argitaratzea erabaki duena, 40 urte betetzen direlako *Txirrita* hilda agertu zenetik.

Txirrita desagertu zen egunean, 1976ko apirilaren 25ean, berarekin zihoazen Eugenio Talavera *Tala* eta Gregorio Garitaonandia *Borda* komandokideen eta haren senideen testigantzak jaso ditu Lizarralde, eta baita ere *Txirritaren* desagerketa eta heriotzaren inguruan Frantziako zein Espainiako agintariek erakutsitako jokabide susmagarria ere.

Desagertu zen egunean, Saratik (Lapurdi) Etxalarrera (Nafarroa) pasatzen ari ziren hiru etakideak, Goardia Zibilak tiroz hanka batean zauritu zuenean *Txirrita*. Ez zuten atxilotu izanaren berri eman, eta hilabete pasa desagertuta egon ostean, baso batean hilda agertu zen, haren senideek eta kideek han inguruan bilatze lanak eginak zituzten arren. *Txirritak* 23 urte zeuzkan. Administrazioak ez zuen kasua ikertu.

HAUTESKUNDE OROKORRAK

Ikastolan botoa ematen duten herritarrek Zubikoa kiroldegian eman beharko dute ekainaren 26an

Datorren ikasturtearekin batera abian jarriko duten proiektu pedagogikora egokitzeko, hainbat lan egin behar dituzte ikastolako haur hezkuntzako geletan, eta, beraz, hauteskude egunetan bertan egoten diren hautes-mahaiak lekuz aldatu egin beharko dituzte ekainaren 26ko hauteskunde orokorretan. Zehazki, Zubikoa kiroldegian jarriko dituzte aipatutako zazpi hautes-lekuak.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Ekainaren 26ko hauteskundeei begira, hilaren 16ra arte eman ahal izango da posta bidezko boto aurreratua. Ildo horretan, EAJ alderdiak botoa emateko zerbitzua eskaintzen du batzokian, egunero, 11:30-12:30 eta 18:00-19:00.

Oñati gestio heziketa

MGEP

HEZIKETA ZIKLOEN ERAGILEAK

Izen-ematea

ekainaren 6tik 17ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantziak • Zuzendaritza Kudeaketa • Salmenta Kudeaketa • Nazioarteko Merkataritza 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizazioa • Automatizazioa eta Robotika Industriala • Sareko Informatika Sistemien Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa • Mekatronika Industriala
www.mondragon.edu/ogh info.eresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09	www.mondragon.edu/gmh/z gmh.z.mgep@mondragon.edu 943 71 21 91

2016-2017

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



DISPERTSIOAREN AURKA. GIZA ESKUBIDEEN ALDE. Oñatiko SAREK deituta, dispertsioaren amaiera exijitu eta preso, iheslari eta deportatuen eskubideak aldarrikatzeko argazkia atera zuten hainbat herritarrek, 'Hartu Trena' ekimenari hasiera emateko. Jendartea aktibatu eta iritzi ezberdinetako herritarrez bagoiak betetzea da SAREren helburua, horrela lortuko baita presoek sakabanaketarekin eta beraien aurka aplikatzen diren salbuespen neurriekin amaitzea.

'Debagoieneko Ituna' sinatu dute hondakin gaikako bilketa aldarrikatzeko

'Debagoiena Eredu. Zabortegirik ez!' plataformak deituta, Debagoieneko Ituna sinatu dute eskualdeko hainbat eragilek (CCOO, ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, Ahal Dugu, EH Bildu, Irabazi, Eguzki, Gorripidea, Ekologistak Martxan, Zero Zabor eta Greenpeace) hondakin gaikako bilketan Debagoiena egiten ari den lan eredugarria aldarrikatzeko. "Osasuna eta ingurumena lehenetsiz, Debagoiengan frogatu dugu oso epe laburrean eta erraz lortu daitekeela hondakin %80 gaika biltzea, eta eredu hori Euskal Herri osora hedatu behar da" adierazi dute sinatzaileek.

Hondakinak gaika bilduz gero, birziklagarriak diren materialak berreskuratu egiten direla gogorarazi dute. "Etxeetan hondakinak sailkatzea nahitaezkoa da eta, gainera, erraz egiten da. Herritarrak berehala jabetu dira zentzuzkoa dela gaika biltzea. Beraz, Gipuzkoara eta Euskal Herri osora zabaldu nahi dugu gure eredu, Europa osoarentzat ere eredu bilakatuz".

Hondakinak etxean sailkatzea elkartasun eta erantzukizun frogarik handiena dela azaldu dute, eta emaitzak etengabe hobetzeko konpromisoa berretsi dute.



Furgobaratza zerbitzua San Martingo ortuetan

San Martingo baratza parkeko erabil-tzaileek osatzen duten OKITANO elkartearen eskutik aurten ere Furgobaratza zerbitzua eskainiko da bertan.

Ekainaren 9an eta 23an egingo ditu hurrengo bisitak Oñatira Furgobaratza zerbitzuak. Gainera, ekainaren 23koan gaixotasun eta izurrien inguruko tailerra egingo da. Horrez gain, landare eta hazi ekologikoak, edota gaitzei aurre egiteko produktuak eskuratu ahal izango dira bertan. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00-etara egoten da Furgobaratza San Martingo baratza parkean. Interesa duen herritar orori irekia dago.



ERRETIROAGATIK
LIKIDAZIOA PREZIO HOBEEZINETAN
AZKEN EGUNAK!!!

ALTZARIAK • ELEKTROGAILUAK • ARGIZTAPENAK • OPARIAK
ELEKTRIZITATE MATERIALA • BAINUGELETARAKO OSAGARRIAK

Euskadi Etorbidea 3
Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 08



Goardia zibilak espaziora bidaliko dituzte Fan Hemendik egunean

laz kuartelaren inguruan giza-katea egin zen moduan, edo orain dela bi urte *flashmob* jendetsua egin zen bezala, aurten goardia zibilak globo aerostatiko handi batean sartu eta espaziora bidaliko dituzte Fan Hemendik egunean. Ekintza sinboliko hori izango da ekainaren 18an ospatuko den Fan Hemendik eguneko nobedadea.

Baina urtero bezala, egun osoko aldarrikapen festa izango da; Goardia Zibilak eta gainerako indar okupatzaileak Oñatitik eta Euskal Herritik joan daitezten aldarrikatzeko eguna.

Trikipoteo batekin (12:30) emango zaio hasiera Fan Hemendik egunari eta gero, ohi bezala, herri bazkaria egingo da. Boga, Ona eta Arrano tabernetan daude salgai txartelak 10 eurotan (ikasle eta langabetuek 6€). Ekainaren 11tik aurrera 2 eurotan garestituko dira txartelak. Bazkalondoa Elektrotxarangak girotuko ditu kaleak eta 19:00etan manifa egingo da. Eta hain zuzen ere manifestazioa kuartel ingurura iristean egingo da goardia zibilak espaziora bidaltzeko ekintza sinbolikoa.

Iluntzeko 21:30etatik aurrera erromeria eta kontzertuak (Oñatiko 'Txipittu', Donostiako 'Kolpatu' eta 'Autobus magikoa') egongo dira Zuazola institutua eta unibertsitate arteko gunean.

Fan Hemendik mugimenduak dei egiten die herritar guztiei ekitaldian parte hartzera.



ZUAZOLA-LARRAÑA BHI



Guztiona, guztion artean



Sartu ate guztiak zabalduko dizkizun prestakuntzara. Zurea da aukera!

Heziketa Zikloak: Larraña

Erdi mailako Heziketa zikloak;

- Mantentze-Lan Elektromekanikoak
- Mekanizazioa
- Natur ingurunean gorputz eta kirri Ekintzen Gidaritza

Bestelako Hezkuntza eskalntza:

- Lanerako prestakuntza: Langile eta langabetuentzat ikastaroak doan,
- Eskareen araberako prestakuntza.

Aurrematrikula: ekainaren 6tik 17ra.

Matrikula: uztailaren 11tik 15era.



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefona bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Aloñako Igoera

Iker Laskurain (Antolakuntza taldea)

Jadanik 12 urte pasa dira 2005ko Maiatzean 1an, Aloñako I.Igoera egin zenetik.

Urte guzti hauetan, hainbat pertsona izan dira Aloñako antolakuntzaren (familia) parte, bere grina, denbora eta aletxo utziz. Bakoitzak bere ekarpenak egin ditu eta guztiak batuz eta guzti hauetatik ikasiz, uler daiteke gaur egungo Aloñako igoera.

Halako lasterketa batek, ehundaka buruhauste ematen ditu baina hauetako batek, garrantzitsuenetako batek, guri ez digu lorik kentzen. Egunean bertan behar diren bolondresen inguruan ari naiz.

Berdin da zenbat diru lortzen duzun, zer nolako lasterketa garrantzitsua izan, munduko onenak etorri edo ez, edota antolakuntzan 20 pertsonak lan egin... egunean bertan, ez badaukazu bolondres talde bat lanean, urte osoko diru indar zein ilusio, pikutara doa.

Bihotz bihotzez eskertu nahi diegu, lasterketa honek beharrezkoak dituen 100 laguntzaile ingururi. Oso harro gaude zuetaz!!! Lasterkari ASKO harritu dira Akaitz edo Artzanburu puntan zegoen eguraldiaz edota baso

Badator KMK'17

Gogoratzen 1989 urtekoa? “Metro erdika, metroka, kilometroak dira...”.

Laster gurean izango dugu 2017koa! **BADATOR KILOMETROAK!**

2017ko irailaren 24a guztiok agendan azpimarratzeko eguna izango dugu, Gipuzkoako Ikastolen jai erraldoiak Oñatiko kale eta bazterrak jendez beteko baititu.

Hori guztia prestatzen hasiak gara, baina zure laguntza behar dugu. Sortzaile, langile, guraso aitona-amona, herritar, ikasle, heldu edo gazte, parte hartzeko gogoz bazaude, prestakuntza lanetarako sortu ditugun 14 lan talde ezberdin horietako batean eman dezakezu izena.

Ekintzak Kilometro egunaz aparte, urte osoan zehar izango ditugu. Beraz, jakin lan talde hauek urte osoan zehar izango diren bilera eta ekitaldi ezberdinak antolatzen arituko direla, urte osokoa izango baita festa, eta ez egun bakarrekoa. Boluntario gisa izena emateko aukera izango duzue, 943781204 zenbakira deituz edo baita **TXANTXIKU IKASTOLAKO** webgunean ere. Beraz, **ANIMATU ETA PARTE HARTU!**

URTE OSOKO FESTA GEUREAN DA!

Zigor Ibarzabal (Txantxiku Ikastola)



bateko edozein izkin izkututan laguntzaileak nolako umore onez zeuden lanean.

Mila esker, goizeko 6tan ibilbide guztia erreparatzen duten mutrikuarrei, dorsal banatzen, ano gunea prestatzen, speaker lanetan, bide gurutzetan, denbora gunetan egon den bakoitzari!!!! Eta nola ez, ikustera bertaratu zaretan animatzaile

bakoitzari. **MUNDIALAK ZARETE!!!!**

Mila esker baita babesle nagusienei eta baita Oñatiko dendariak egin dizkiguten ekarpenei!!!!

Bukatzeko, Oñatiko Udalarri eta Arrikutz kobei, eskerrik beroenak!!!!

Oñatiko herri honekin, luzarorako daukagu Aloñako Igoera!!

Pozik bizi!

Irakurketa-kluba gaztetxoentzat: *Berbia ixuketan*

Amaia Erostarbe, EAJren zinegotzia

Oso ohikoa da gure gizartean kirol-ekitaldi bat ikusteko elkartzea eta, gero, horretaz jardutea. Ohikoa da film bat ikustera joateko geratzea ere, eta, ondoren, elkarrekin komentatzea. Hala ere, ez da hain ohikoa liburu bat irakurtzea eta, haren bueltan, tertulia egitea. Irakurketa-klubetako bezeroak, hortaz, frikiak ote dira?

Irakurketa-klubetako irakurleak liburutegi publikoetan elkartu ohi dira liburuzainaren babesean hilean behin. Talde finkoa izaten da, eta haren funtsa hauxe da: aurrez adostu den liburuaren gainean hitz egitea, iritziak partekatzea eta iritzi kritikoa ematea. Jarduera ezin hobea da, hortaz, irakurketa sustatzeko eta irakurleak zaletzeko; liburutegia herritarren elkargune bihurtzeko balio du, eta liburutegiaren gizarte-funtzioa ere indartzen du...

Oñatiko udal-liburutegian badago helduentzako irakurketa-kluba (*Tertulixan*); badago Ostegun kontalariak proiektua neskatala-mutikoentzat, eta baita Bularretik Mintzora egitasmoa ere ume txikientzat. Alabaina, gaztetxoentzako irakurketa-kluba falta da. Hain zuzen, hutsunea dago adin-tarte horretan (neraberazoan), eta eten egiten da ume-umetatik hainbeste sustatu den irakurzaletasunaren haria. Ez da ahaztu behar gaztetxo asko eta asko orduantxe hasten direla gutxiago irakurtzen edo ez irakurtzen.

EAJk bere egin du irakurketa-taldeen dinamika, eta gaztetxoentzako irakurketa-taldea sortzea proposatu du 2016 urterako aurrekontuetan. Proposamen horretan, gainera, aurreikusi da euskarri digitalekin lan egingo dela; baita latinoamerikar gazteen artean eta Bartzelona aldean azken urteetan hain arrakastatsua den *booktube* formarekin ere.

Berbia ixuketan deituko da Oñatiko Udal Liburutegiko gaztetxoentzako irakurle-txokoa, eta ekainean jarriko da abian. Lau tailer prestatu dira 2016rako, eta literatura-genero hauek landuko dira: bideo-poesia, ipuingintza, komikia eta olerki xuxurlatua.



Liztor beltzaren lehen habia kendu du udaltzaingok

Liztor beltzaren denboraldia hasi da, eta argazkikoa bezalako habi primarioak kentzea komeni da, handitu baino lehen. Horretarako, herritarren laguntza eskatu du udaltzaingok. Norbaitek halakorik ikusten badu, dei dezala udaltzaingora (943081000) lehenbailehen kendu ahal izateko. Maiatzaren 27an Errekaldeko 39 zenbakidun atarian kendu zuten bat, argazkian ikusten dena, hain justu.

'EUSPOT'-en SARITUAK

Igor Salgado, Danel Terán eta Iker Plazaolak 'Euspot' lehiaketako gazteen saria (250€) eskuratu dute, gazte-lekuaren laguntzarekin egindako 'Edertasuna barnealdean dago. Etorri eta ezagutu' lanari esker. Aretxabaletako udalak, MU-k eta Arteman Komunikazio enpresak antolatzen dute Euspot lehiaketa, sormena bultzatu eta publizitatearen arloan euskararen erabilera sustatzeko. Aurtengoa bosgarren edizioa izan da (www.euspot.eus).



Angel Alkainen eskutik jaso zuten saria

OÑATI IRRATIAREN 25. URTEURRENEKO ZOZKETA

25 urte bete zituen Oñati Irratiak maiatzaren 11n. Hori ospatzeko irratsaio bereziak eskaini zituen aste osoan zehar, eta hainbat sari zozkatu entzuleen artean: tarta gozo bat egunero, eta 100 txantxiko sari nagusia azken egunean, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziari esker. Irati Urzelarentzat izan zen sari potoloa. Irratiko zuzendari Miren Urkiolaren eskutik jaso zuen saria.



1964an JAIOTAKOEN KINTTADIA

1964an jaiotakoek uztailearen 9an ospatuko dute kinttadia, Zumeltzegi dorrean egingo duten bazkari baten bidez. Bertan parte hartzeko 35€ sartu behar dira Laboraleko ES85-3035 0170 57 1700030160 zenbakian, uztailearen 1a baino lehen.

XOLONPO

Urtebete pasatu da Xolonpok utzi gaituenetik. Honelako uneak aproposak izaten dira, distantziatik, oroimenak eta sentimenduak adierazteko. Denok dau-kagu nor oroitu, bikotea, seme-alabak, lagunak, senideak. Norbait oroitzea ez da atzera begiratzea soilik, ez eta oroi-menetik bizitzea, ez da horrela izan behar. Ezin dugu ahaztu gizakiok oraina garela, baina baita ere iragana, iraganak egin eta osatzen gaituela garenak izateko. Eta etorkizunerantz,



Luis Guridi

iragana eta oraina gurekin eramaten jakin behar dugu, norberaren nortasunaren aberasgarri izan dadin.

Ez da ohikoa izaten, ordea, hainbat jendek norbait gogoratzea Xolonpo bezala. Harreman zabalak eta anitzak zituen tankera desberdinetako jendeekin, han eta hemen, gazte eta adinduen artean. Bakoitzak gogoratuko du bere erara, berarekin harreman propioak izan zituelako, momentu bereziak bizi izan zituelako: familian, bikotean, lantegian,

auzoan, kalia, tabernetan, jaixetan, futbolian, manifestazioetan, Gaztetxian... Eta hori bakoitzak gordeko du bere baitan altxor propio bezala.

Harremanen aniztasun horretan dago, besteak beste, pertsonaren handitasuna. Baina horretarako zerbait berezia izan behar du eta Xolonporen kasuan bere baloreak ziren, umiltasuna, adiskidetasuna, umoria, sufritzen dutenenganako gertutasuna eta elkartasuna, besteeenganako arreta eta zaintza.

Horrelako pertsonak maitatuak izaten dira edonon; horrelako pertsonak joaten direnean, gu bakoitzaren zerbait doa beraiekin; baina era berean, beraien zerbait geratzen da gurekin, betirako.



HELDU DA EZKONTZA GARAIA

Hainbat buruhauste ekartzen dizkigun hilabeteetan sartu berri gara. Batzuekako ekaina, beti da azterketen seinale. Beste batzuekako, berriz, udara eta jai zaparraden hasiera.

Baina, jakineko kontua da, ekaina iristen denean ezkontzak, eguneroko notizia bihurtzen direla. Kuadrilako baten boda, lehengusuarena, lankidearena... Eta, boda guzti hauetarako dirua eta denbora, nondik aterata?

Ez bait da soilik, ezkontza eguna iritsi eta elizan, udaletxean edo banketean presente egotea; baizik, eguna baino



Amaia Aranzeta

lehenagoko prestaketa guztiak izaten dira, ardura gehien ematen dituztenak; eta, ez ezkonduko direnei bakarrik... baita, ingurukoei ere!

Zer esanik ez, lehenengo, despedida zehaztea (hau, jakinik, guztiak ados egon eta guztiok, lagunok esaterako, despedida hori antolatzea "behartuta" gaudela, nahiz eta, aski gustora egiten dugun zerbait izan!) Bigarren, ezkontza egunerako guztia prest izatea: arropak, ileapaindegia, manikura, pegazko morenoa... emakumeok behintzat, ezkontza baten aurrean, maiz izaten ditugun duda

(existentzialak, nonbait) dira hauexek. Baina, barnean, zer nolako garrantzia ote du hau guztiak? Batzuekako ezkontza bat ospatzea, hau da, gonbidatu, bankete eta musika banda ta guztiz, paripe bat besterik ez da. Beste batzuekako, ordea, ezkontza bat ahalik eta handiena, luxuzkoena eta izugarriena izan behar da (bizitzan "behin" gertatzen den zerbait delako).

Baina, zer da egokiena? Nik, pertsonalki, ideiarik ez. Bikote baten arteko maitasuna eta elkarbanatzearen adierazle den ezkontzaren erritua, norberak uste bezala ospatu dezala; maitasuna, ez bait da dirutan neurtzen; nahiz eta, ezkontza bakoitzarekin, norberaren poltsikoak, nabari sentitu. Hala ere, nire partetik, on egin guztiei, zorionak ezkonberriei, eta sorte on, oraindik, ezkontzekoak direnei!

- Arazerixan -

BOTEREA ALDEZ ALDATUKO DUTE

Hartu emanek, iritzi elkartrukreek, galdera erantzunek, gure dugun horrek, zalantzara eramaten laguntzen gaituzte. Eta zalantzek aldi berean, aldaketa ahalbidetzen digute. Baina harreman guztiak ez ditugu berdin baloratzen, batzuek gugan eragin nabarmenago bat izaten dute eta etekin pertsonal gehiago atera dugunaren sentsazioa izan ohi dugu.

Baina zerrek eragiten du gu geu bestearekiko irekiago aurkeztera? Bestearekiko errespetuan egon liteke gakoa. Aurrean duzun horrekiko, zein aurreiritzi, balorazio edota irudikapen eraikitzen dituzun, horrelakoa izango da hein handi batetan zeuretzako jasoko duzuna ere.

Orain hilabete martxan jarri dugun Udal aurrekontu parte-hartzaile honek ere, gazteekiko eta haurrekiko ditugun harremanen nolakotasuna beste behin aztertzeke aukera eskaini digu. Gaia lantzen hastearrekin bat, lehenengo planteamendua; nola egin aurrekontuen gaia ulergarriago? Nola gerturatu haurren eta gazteen ikusmoldera?... Haurrek soilik behar al dute udaleko aurrekontuak ulertzeko transmisio espezifiko bat?

Behin prozesuko emaitza batzuk jasotzen hasi garela, gure hitzak ere berdin jarraitzen dute; proposamenak oso eginkorrak, zentzuzkoak... Zergatik izan behar zuten bada fantasiaz beterikoak soilik? Eta zergatik baloratu positiboago egingarriak diren proposamenak eta ez horrenbeste irudimenez, ilusioz eta fantasiaz beteriko horiek? Zergatik, proposamen balizkoak izateko helduok egin ohi ditugun balorazioen antzerakoak izan behar dute?

Haur eta gazteek hitz egin dute eta horretan dabilta oraindik, beraien iritzia entzuteko eta gauzatzeko apustua egin bada, ondorio guztiakin izan dadila eta gainontzeko helduen bezainbesteko balio izan dezala beraien hitzak ere. Horrek agian helduok dauzkagun aukera edo pribilegio batzuk galtzea edo moldatzea ekar lezake, baina hori da bidea herria herritar guztiona izateko eta ez 18 urtetik gora eta boto eskubidea dugunona soilik.

Askorako emango duen prozesua da honakoa, haur eta gazteak gehiago ulertu eta beraien gehiago enpatizatzeke balio izango diguna: ze arazo, ze nahi, ze ikuspegi etab. dituzten sakontzeko balioko diguna. Haur eta gazteak ez dira etorkizuneko herritarrak, egungo jendartearen parte aktibo dira eta era horretan hartu behar ditugu aintzat.



EKAINEAN...

LUDOTEKA [11] Suhiltzaileetara irteera, **[15]** Azken festa herriko plazan (ludoteka eta bertakotzeko haurrek), **[22]** Udalekutako guraso bilera, **[25]** Hezitzaileen formazio saioa (10:00-14:00), **[27]** Udalekuen hasiera. **KUBOA [3]** Udako planen bilera, 6. mailakoekin, **[10-11-12]** Kuboa margotzea **[19]** Kuboko II. Futbol txapelketa. **TOPALEKUA [10-11]** Gaztekonkis parte-hartzaileen bilera, **[23-24-25]** Gaztekonkis **GAZTELEKUA [24]** Albert Cavalier + Nothing Box taldeen kontzertua. Sarrera: Doan.

BELATZ HANDIA TIROKATUTA OÑATIN

Oñatiko Naturzaliak

Izaskun Urizabel, Jon Ugarte,
Joxe Ruiz, Idoia Bollar



Argk.: Kiko Alvarez

Pasa den astean belatz handi bat agertu zen zaurituta Oñatiko San Martin hariztiaren inguruan. Horrelako kasuetan ohiko denez, Igeldoko Arrano etxera eraman zuten, aztertu eta ahal izanez gero osatu eta ondoren askatzeko asmoz. Zoritxarrez laster hil zen, gorputzean perdigoi ugari baitzituen, egun gutxi batzuk lehenago jasotako tiro baten ondorioz.

Azpimarratu behar da batetik ez dela ehiza garaia, eta bestetik belatz handia (*Falco peregrinus*) espezie babestua dela (bakana edo arraro moduan jasota EAEko Babestutako Espezien Zerrendan). Beraz, itxura guztiz, intentzio osoz botatako tiroa izan da. Eskopeta bakarrik ehiza garaian erabil daiteke, udazken-negu partean, eta bakarrik espezie ehizagarriak botatzeko (usoa, oilagorra, birigarroa...). Baina norbaitek ez zuen asko maite belatz hau eta tiroz botatzea erabaki du; bejondeiola!

Oñatiko naturzaleok, beste oñatiar asko bezala, San Martin, Murgia eta Berezaio aldetik paseatzen ibiltzen gara eta askotan ikusi izan dugu belatzen bat edo bi inguru horietan hegazka eta oihuka. Gauza ederra da belatz handia ehizan ikustea; hegazti azkarrena dela esan ohi da, ia 400 km/h abiadura hartzen baitu. Faltan botako dugu hilda agertu den belatz eme hau. Ale ederra zen, tamaina politekoa eta ohikoa ez den bular laranja kolorekoa.

Oñatiko mendietan belatz handi bikote bakarren batzuk umatzen dute urtero-urtero. Aizkorri-Aratz Parke Naturelean, bai Araba aldean, bai Gipuzkoan ikus edo entzun daitezke bikote batzuk, batez ere orain, umatze garaian. Dagoeneko belatz txitak jaio dira eta gurasoak jo eta ke ari dira ehizan txitei jaten emateko. Eme hau hilda, bere bikotea ahaleginduko da txitak aurrera ateratzen (2-4 txita oro har). Oraindik garai hotza da eta arrak ezingo ditu berotu txitak, ehizan aritu beharko baita.

Belatz handiak batez ere usoak, birigarroak eta txoritxoak ehizatzen ditu. Eta herri eta hirietan ere ikusten da bertako hegaztien atzetik. Ehiztari aparta izan arren askotan huts egiten du bere saiakeretan. Txitei jaten emateaz gain, hauei ehizatzen erakutsi behar die. Ez du lan makala! Zaila izango da kumaldia aurrera ateratzea eta litekeena da kume guztiak hiltzea.

Azkenik esan Babestutako Espezie bat akabatzea delitua izan daitekeela eta zentzu horretan 2014an Donostian belatz handi bat tirokatu zuen gizon bat zigortua izan dela. Oñatiko kasuan ez da erraza izango tirogilea aurkitzea, nahiz eta basozain zein ertzainak saiaturiko diren. Ikas dezagun zer dugun gure etxe inguruan!

Oineko tratamendu osoa

KAILUAK ONDDOAK AZAZKALAK
PAPILOMAK GOGORGUNEAK...

Neurrira egindako silikonak

Oineko miaketa, plantilak

Podóloga

Marta Frances Barbero
Categoría Nº B3B89033A

Ebreko
Zerbitzuak



644 136 419



Kale Zaharra Nº 5 beh. esk. OÑATI



martafrancespodologa@gmail.com

Euskadi eta Egiptoko eskubaloiko selekzioak aurrez aurre Oñatin

Jokalari, entrenatzaile eta kazetari gisa eskubaloia oso gertutik bizi izan zuen Juan Carlos Elorza gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Aloña Mendiko Eskubaloiko sailak



1976. urteko taldea. Zutik eskuman lehena da Elorza

Eskubaloiko gaietan izen handiko kazetari izan zen Juan Carlos Elorza (1960-2016). Aloña Mendiko eskubaloiko sailean aritu zen gaztetean, jokari eta entrenatzaile gisa. Gero, Egin eta Gara egunkarietan jardun zuen kazetari lanetan. Zoritxarrez, otsailaren 19an hil zen, gaitortasun baten ondorioz, eta hura gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Aloña Mendik.



Buru argia, jenio bizikoa, bidazkera zorrotza, taldekide aparta, gidari bikaina... Halaxe deskribatzen dute Juan Carlos Elorza bere lagun eta lankideek. Eskubaloiko gaietan euskal prentsan izan den kazetari adituenetako bat zen (komunikabidetako kideek esana). Asko maite zuen eskubaloia.

Aloña Mendiko eskubaloiko sailean aritu zen gaztetan, jokari eta entrenatzaile gisa. Gero, kazetaritza ikasketak egin ostean, *Egin* egunkariako edizio lokaletan hasi zen lanean, eta ondoren Kiroleko saileko arduraduna izan zen. *Egin*-eko erredakzio buru ere izan zen sei urtez, eta egunkaria indarrez itxi ostean, hurrengo egunean bertan '*Euskadi Información*' kazeta kioskoetan egon-tearen arduradun nagusietako bat izan zen. *Gara* egunkariaren sorreran ere parte hartze zuzena izan zuen. Zuzendariordea izan zen bost urtez eta gero kiroleko arduraduna. Dedicazio bereziz jarraitzen zuen eskubaloia eta ahalegin berezia egiten zuen emakumezkoen taldeak bultzatzeko. Hainbat erekonozimendu jaso zituen eta Euskal Herriko eskubaloien familia osoak bere atsekabea agertu zuen haren heriotzean.

EGITARAUA

- Ekainak 4.** Euskal Herriko Kadete mailako selekzioen (neskak eta mutilak) txapelketa Zubikoa kiroldegian, goiz eta arratsaldean.
- Ekainak 6.** Prentsaurrekoa- Euskadi-Egipto partiduen aurkezpena udaletxean, 19:00
- Ekainak 7.** Mahaingurua Juan Carlos Elorzari buruz *Gara* eta *Egin* egunkarian lankide izan zituen kazetariekin. Kultur etxeko zine aretoan, 19:00.
- Ekainak 9.** Euskadiko 21 urte azpiko selekzioaren entrenamendu saioa Zubikoa kiroldegian, 19:00
- Ekainak 10.** Formazio saioa. '*El entrenador y los aspectos psicológicos de la lesión*' Unai Arrieta kirol psikologoaren eskutik. Kultur etxean, 17:00.
- Ekainak 10.** Euskadi eta Egiptoko selekzioen (sub 21) partidua Zubikoa kiroldegian, 19:30etan.
- Ekainak 11.** Teknikakzio saioa. Eskubaloiko entrenatzaileei zuzenduta, kultur etxean, goiz osoan zehar. Juan Antonio Moreno eta Reyes Carrere nazional mailako entrenatzaileekin, eta Euskadiko federazioko teknikarien eskutik.
- Ekainak 11.** Euskal Herriko Infantil mailako selekzioen (neskak eta mutilak) X. Korpus txapelketa, Zubikoa kiroldegian, goiz eta arratsaldean.

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje... garbiketa integrala
- Lurren kristalizatuak, dekapatuak eta argizari ematea.

Oiakua 17 beheko, esk. / Tel: 733 733 713
argitagarbi@hotmail.com

ARGITAGARBI

Almaraz
Inmobiliar gestioa

Tel: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
'Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei lezaguzu.'

Final laurdenetan da Oñati

Astigarraga izango da aurkaria Herri Arteko txapelketan. Itzuliko partiduak ekainaren 10ean Zubikoan (22:00)



Oñatiko pilotariak. (Argk.: OK Magazinea)

Handia egiten ari da Oñati Herri Arteko pilota txapelketan. Hamabost urtez txapelketatik kanpo egon ostean (taldea osatu ezinik), iaz lehiaketara bueltatzea lortu zuen eta aurten, dagoeneko, bi kanporaketa gainditu ditu. Zumarraga eta Tolosa (iazko finalista) mendean hartuta, final laurdenetan dago jada Oñati.

Orain arteko bi kanporaketetan antzeko gidoia errepikatu da. Oñatik kadete eta jubenil mailako partiduak irabazita egin du aurrera. Astigarragaren aurkakoan berriz, badirudi kadete mailako partidua orekatuta egongo dela, baina jubenuletan, Euskal Herri mailan nabarmentzen den pilotari bat dauka Astigarragak, eta oso garesti egongo da puntu hori. Horregatik, bikoteen osaketan aldaketaren bat egiteko aukera aztertzen ari dira Oñatiko pilota saileko arduradunak. Senior mailan Astigarraga da faborito argia.

Eraitza edozein delarik ere, oso pozgarria da Oñati Herri Arteko txapelketako final 1/4etan ikustea. Orain dela hamar urte Oñatiko pilota zuloan zegoela kontuan hartuz, gaur egun Gipuzkoako zortzi onenen artean ikustea oso albiste ona da, inondik ere. Beraz, gozatzeko unea da, zalantzarik gabe. Aurreko astean pilotazale asko batu ziren Zubikoako harmailetan, oso giro polita egon zen, eta ea errepikatzen den Astigarragaren aurkako bueltako partiduetan (ekainak 10).

Final erdietara sailkatu ala ez, zorionak emateko unea da, bereziki Sergio Uriarte (pilota eskolako arduraduna) eta Josu Osa kirol arduradunei, eta direktiba lanak egiten ari diren lan ederragatik. Oso lan ona egiten ari dira harrobiarekin (gaur egun 45 bat neska-mutiko ari dira pilota eskolan) eta horrela jarraituz gero, lan horrek bere fruituak emango ditu etorkizunean, inongo zalantza barik.

Igerilekuaren inguruko oharra

BELARDIA ZABALIK. Ekainaren 15etik irailaren 25era zabalik egongo da igerilekuko belardia. Gainera, orain arte ez bezala, bertan jateko aukera egongo da aurrerantzean. Gunea garbi mantentzeko deia egiten zaie erabiltzaileei. Bestalde, kiroldegiko terrazan debekatuta egongo da erretzea.

'SEMAFORO' IGERILEKU TXIKIAN. Udal Kirol sailak hala onartuta, aurrerantzean 'semaforo' bidez kontrolatuko dute sorosleek igerileku txikiko aforoa. Semaforo funtzioa beteko duten foko bat egongo da bertan, eta gehienezko aforoa gainditzen denean, argi gorria piztuko da, eta ezingo da igerilekuan sartu, norbait bertatik irten arte. Aforo arazorik ez dagoenean, berde egongo da fokoa. Erabiltzaileen segurtasuna bermatzea da neurri honen helburu edo arrazoia.

SAUNA. Ekainaren 15etik aurrera hauxe izango da erabilera sexuen arabera:

-Astelehen eta asteazkenak: emakumeak.

-Astearte eta ostegunak: gizonak.

-Ostiral eta asteburuak: erabilera mixtoa. Egun hauetan derrigorrezkoa da bainujantzia jantzita eramatea.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

**Pisua
Alokatzeko**

Kale Barria, 54.
Etxaluze.
Handia. 100 m2.
Hiru logela.
Tel: 669 710 116

UDANAKO IGOERA EKAINAK 25

Udana Automobilismo Taldeak antolatuta, Udanako XI. Igoera jokatu da ekainaren 25ean. Euskadiko Igoeren txapelketako 9 proba puntuagarrietan laugarrena izango da, eta Euskal Herriko pilotorik onenak ikusiko ditugu nor baino nor azkarrago. Goiz partean herriko plazan egingo dira autoen egiaztapen teknikoak (10:30-12:30) eta bertan egongo da autoen parke itxia (12:30-13:15). Ondoren, autoak Udanarantz abiatuko dira, eta 15:00etan hasiko da lasterketa.

Antolatzaileek dei egiten diete herriko motor zaleei Udanara hurbildu daitezen ikuskizunaz gozatzen. Aurreko urteetan bezala, hormigoizko blokeak jarriko dituzte leku arrisksuetan segurtasuna bermatzeko.



8 OÑATIARREK PARTE HARTUKO DUTE. Dagoeneko 8 oñatiarrek baieztatu dute Udanako igoeran izango direla: **Asier Mugarza** (Renault Clio Sport), **Asier Samaniego** (BMW M3), **David Ardions** (Renault Clio Sport), **Iosu Agirre** (Seat Ibiza Cupra), **Jagoba Txintxurreta** (Seat Leon Cupra), **Julen Altuna** (BMW 325i), **Monika Muñoz** (Citroen ZX 16v) eta **Xabier Elgarresta** (BMW M3). Beharbada beste bi piloto ere izango dira irteera marran.

Aitor Aizpurua Gipuzkoako txapelduna Muestra-Txakurren lehiaketan

Burgoseko Cernegula herrian jokatu zen Gipuzkoako Muestra-Txakurren txapelketa irabazi du Aitor Aizpurua oñatiarrak, *Eros* txakurrarekin, sei urteko Setter ingelesa.

Muestra edo Erakus-Txakurren modalitatean txakurrak ahalik eta azkarren aurkitu behar du eperra, eta somatzen duenean ehiztariari markatu eta gelditu geratu behar du honek tiroa jo arte. Baina ez da hegaltia hiltzen. Bilatze lana saritzen da, ez pieza ekartzea. Bikoteka jokatu dira kanporaketak, eta azkarren aurkitzen duenak egiten du aurrera. Iaz Gipuzkoako zirkuitoko (8 proba jokatu dira) txakurrik onenaren saria ere irabazi zuen Aitorrek *Eros* txakurrarekin.



Argider Isasti azpitxapeldun Soplaoman ultra-triatloian

Ezin izan izan zuen iaz lortutako garaipena errepikatu, baina meritu handiko bigarren postua lortu du Argider Isastik Kantabrian (Cabezón de la Sal) jokatu den 'Los 10.000 del Sopla' mendi-triatloio gogorrean (10km. igeri/75km. korrika/110km BTT). Tino Zaballa txirridulari profesional ohiak lortu zuen garaipena (18:48:22) eta 19:08:51n helmugaratu zen oñatiarra.



Xabier Gordoa hirugarren

Asteburu berean distantzia luzeko (10km.) itsas zeharkaldia ere jokatu zen Cabezón de la Sal-en eta Xabier Gordoa oñatiarra hirugarren sailkatu zen (2:13:29), Cesar Obregón irabazlearengandik minutu batera.



MOTZEAN

► MENDI IRTEERAK

Mankomunitateak antolatu duen 'Puntaik Punta' Debagoieneko bidezidorren jaialdiaren baitan bi irteera egingo dira datorren asteburuan Aloña Mendiko Mendi sailak gidatuta:

- **Ekainak 11:** PR Gi-1003 'Uraren ibilbidea'. Araotz-Zamalbide-Ugastegi, -Aitzgain-Aitzulo-Araotz (10km.). Irteera Araotzeko elizan, 9:00.

- **Ekainak 12:** Aizkorriko kresteria: Arantzazu-Eskista-Andraitz-Arbelaiz-aketegi-Aitzgorri-Oltza-Arantzazu (19,1 km. eta 1150m.-ko desnibela). Irteera Arantzazuko turismo bulegoan, 7,30etan.

► ARANTZAZUKO IGOERA

Ekainaren 4an (16:30) XLVII. Arantzazuko Igoera jokatu da Junior mailako txirridularientzat. Bestalde, **ekainaren 12an** Kadete mailako txirridulari lasterketa jokatu da Olakuan.

► TXANTXIKU IGERIKETA SARIA

Ekainaren 11n (15:00) Zubikoan. Igerilekua eta sauna itxita egongo dira.

► GIMNASIA ERRITMIKOA

Ekainaren 12an ikasturte amaierako saioa Zubikoa kiroldegian, 12:00etan.

► PATIN EGUNA

Ekainaren 25ean, Tattarraz taldeak antolatuta, herriko plazan eta bidegorrian: 9:00-14:30.

► TORREAUZOKO LASTERKETA

Uztailaren 3an (11:00) jokatu da Torrauzoko XIX. Herri Lasterketa (7,5 km.), Abixaran taldeak antolatuta. 'herrikrossa.eus' webgunean, Aloña Mendi tabernan edo Mendizabal kirol dendan eman daiteke izena 8€tan (egunean bertan 12€). Amaieran sari ugari zozketatuko dira.



Eltzia Eguna

► **Eltzia proiektua, eraikina eta bertan diharduten kultur eta gizarte arloko taldeen lana ezagutzeko aukera egongo da ekainaren 4an. ► Herritar guztiak daude gonbidatuta.**

Ieltzia Eguna ospatuko da **I**ekainaren 4an. Herritar guztiei zuzendutako jaia da (*ikus egitaraua*). Herriko kultur nahiz gizarte arloko taldeen arteko elkarlana eta sormena sustatzeko helburuarekin jaio eta mamitzen ari den **ELTZIA** proiektua ezagutzera emateko ekitaldia izango da. Eltzian diharduten taldeak eta beraien lana ezagutzeko aukera egongo da, eta baita **ETEO** zaharrean egin diren egokitzapen lanak ikusteko ere. Besteak beste, sotoan musika taldeentzat egokitu diren lokalak (Musika Eltzia) ikusteko aukera egongo da. Eta aukera polita izango da baita ere, Eltzia osatzen duten taldeek elkar ezagutu eta euren arteko harremanak estutzeko.



KULTUR NAHIZ GIZARTE MAILAKO 20 BAT TALDE (GEHI 44 MUSIKA TALDE) DAUDE GAUR EGUN ELTZIAN

HIRU URTEKO IBILBIDEA
2013an hasi zen mamitzen Eltzia proiektua. Ikusita **ETEO** zaharra hutsik zegoela eta, bestalde, herriko hainbat kultur talde lokal beharrean zeudela, Udalak egitasmoa lantzeari ekin zion. Helburua ez zen soilik lokalen lagapen egitea, baizik eta funtzionamendu eta sormen eredu berri bat lantzea, taldeen arteko sinergiak aprobetxatuz.
Bagara Herrigintza taldearen laguntzarekin parte-hartze prozesua jarri zen abian herriko talde guztiei irekia, eta urte hauetan urrats ezberdinak ('Gizarteratzea', 'Erradiografia', 'Definizioa', 'Proiektu arkitektonikoa' eta 'Kudeaketa eredu') osatu dira, **ELTZIA** proiektua gorpuztu arte.

EGITARAUA



09:00 Gosari osasuntsua eta muntaia herrikoia Lagun Lekun.

10:00 Naturzaleek gidatuta ibilaldi ederra Eltzia inguruetan.

11:00 Haur, gazte eta gurasoentzako ekintzak Oinaztu eta Txantxikiren eskutik.

12:30 Triki-Bertso-Dantza poteoa Olakua eta San Lorentzo auzoetan zehar, Lizargarate, Bertso Eskola eta Oñatz taldearen eskutik.

GOIZEAN ZEHAR: Zizelkari, margolari, '7 Udaberrí' eta Gurutze Gorriaren eskutik erakusketa praktikoa azalpenekin Eltzian. Eta Ilunpetan taldearen eskutik *photocall*-a eta murala.

14:30 Bazkari herrikoia giro bikainean, herri osoari irekia. Txartelak salgai Lagun Lekun.

16:30 Bingo berezia Irazan taldearen eskutik.

18:00 Kontzertuak 'Zai Zoi Bele' kolektiboko taldeen eskutik: 'Ixilik', 'Poli-ticks', 'Hydra', 'Ezcore', 'Lokuria' eta 'GUSB'

21:00 Amaiera. Guztia batu eta hurrengo urterarte.

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

S distira
estetika zentrua
Informazio gehiago hemen...

Tratamendu aurera, GIMNASIA EMOZIONAL INTEGRALA

San Lorentzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

OÑATI ABESBATZAREN 50. urteurreneko kontzertua



EKAINAK 4, LARUNBATA, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:30

50. urteurreneko kontzertu berezia eskainiko du Abesbatzak larunbatean (ekainak 4). Abesbatzaren ibilbidean ikur izan diren Aita Madinaren kantak abestuko dituzte, besteak beste. Esteban Urzelai eta Aitor Biain abesbatzako kide ohiek ere parte hartuko dute. Orgno jolea Esteban Irusta izango da.

EGITARUA

1. *Agur Maria* (Zuz.: Loli Ordoki)
2. *Aita Gurea* (Zuz.: Imanol Murua)
3. *Arantzazu Rapsodiaren zatia* (Zuz.: Aitor Biain)
4. *Lacrimosa* (Zuz.: Aitor Biain)
5. *Arantzazu Poema* (Zuz.: Esteban Urzelai)
-Sarrera /-Udaberriko abestia /-Dantzara /-Agerkundera
6. *De ronda por Aragon* (Zuz.: Mirengu Plazaola)
7. *A la fuente del olivo* (Zuz.: Mirengu Plazaola)
8. *Kantauri* (Zuz.: Mirengu Plazaola)
9. *Three contemporary Lating Setting* (Zuz.: M. Plazaola)
-Kyrie/ -Adoramus / -Gloria

ORAINA ETA ETORKIZUNA

Kultur nahiz gizarte mailako 20 talde (gehi 44 musika talde) daude gaur egun Eltzian, eta modu auto-gestionatuan funtzionatzen dute. Eraikineko gastu orokorrak (argindarra, ura...) eta mantenimendukoak Udalak hartzen ditu bere gain.

Kudeaketa eredu adostuta, ETEO zaharra Eltzia proiektuaren beharretara egokitu behar da orain. Ildo horretan aurreneko aktuazio nagusia egin du Udalak, musika taldeentzako 11 lokal egokituta, 267 mila euro (BEZ kanpo) inbertituta. Orain, lehen eta bigarren solairuak egokitzeko obrak egingo dituzte. Aurten bertan hasiko dira lanak 425 mila euroko aurrekontuarekin.



ETEO zaharreko sotoan musika taldeentzat udalak egokitu dituen 11 lokalak, Lagun Leku elkarte eta Eltzian diharduten taldeen lana bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da larunbatean.





ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berozao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BU, XALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA ENPOZATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Larrañe b. zoi. 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Baserriko ogia, egurrezko labar

AGENDA

06

EKAINA



ARANTZAZU, AFRIKAREKIKO TOPALEKU

> EKAINAK 4 GANDAIAGA TOPAGUNEAN

TAU Fundazioa eta Arantzazuko Adiskideak elkartearen eskutik hain gertu eta, aldi berean, hain urruti dagoen Afrikako kontenenteko errealitatea ezagutzeko jardunaldia egingo da Arantzazuko Gandiaga Topagunean, zinearen, argazkien eta musikaren bidez.

Goizean, 10:30etan hasita, zine afrikarra ('Taharuki' eta 'Cold Harbour') ikusteko aukera egongo da, eta ondoren mahai ingurua Carey McKenzie zinegilea eta Beatriz Leal zine adituekin. Arratsaldean (16:00) 'Afrika: jendeak, lurak eta errealitateak' argazki erakusketa eta melodia afrikarrak euskaraz abesten dituen Enekora taldearen kontzertua (16:45). Eguerdi partean Arantzazuko Santutegia Hotelean bazkaltzeko aukera egongo da, 15€ ordainduta. Informazio gehiago www.taufundazioa.org

ZINEA

> EKAINAK 2 / 19:30 'PRINCESAS'



Sexu langileen nazioarteko egunaren harira, Fernando León de Aranoaren 'Princesas'

filma ikusgai kultur etxean, Oñatiko Sare Feministaren eskutik.

ANTZERKIA

> EKAINAK 10 / 22:00 'HOSPITAL O MANICOMIO'



Antzerki solidarioa Pake Leku elkarteko Ikusi Makusi taldearen eskutik. Batzen den dirua Ekuadorreko lurrikarak kalte-tutakoentzat izango da. Ekainaren 8-9an jarriko dira sarre-rak salgai (5€) Pake Lekun (18:30-20:00).

JAIALDIK

> EKAINAK 23 / 23:00



SAN JUAN SUA
Udako solstizioaren jaia Foruen plazan.

KONTZERTUAK

> EKAINAK 9 / 22:00
'OCCHI DI FARFALLA'+ 'MICE'
Occhi di Farfalla laukote elektrikoa eta 'Mice' (Miren Narbaiza) musika intimoa Antixena gartzetxean (4€).



> EKAINAK 10 / 22:00
'REINCIDENTES', 'ALERTA GORRIA' ETA 'LOKURIA'
Sevillako 'Reincidentes' punk-rock taldea, 'Alerta Gorría' nafarrak eta Oñatiko 'Lokuria', Olakuako jaietan.




> EKAINAK 24 / 22:30
'ALBERT CAVALLIER' ETA 'NOTHING BOX'
Donostiako rock taldeak Gaztelekuan. Sarrera doan.

> EKAINAK 25 / 22:00
'VICE PRESIDENTES' ETA 'LOKURIA'
'Vice Presidentes' hirukote gasteiztarra eta 'Lokuria' hirukote oñatiarrak Antixena gartzetxean. Sarrera: 3€.

TAILERRAK

> EKAINAK 17 ETA 18



KALIGRAFIA GOTIKOA
Arantzazu Gaur fundazioak eta EHUko Letra, Diseinu grafiko

eta Tipografia Taldeak antolatuta. Bego Viñuela kaligrafa ospetsuaren eskutik.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.





LITERATURA

> **EKAINAK 28 / 19:00**
SENEGALÉKO IPUINAK



Senegalen liburutegiak eraikitzeke proiektuaren barruan, bertako ipuinak biltzen di-

tuen 'El dragón que se comió el sol' liburua aurkeztu eta hainbat istorio kontatuko ditu Ana Cristina Herrerosek udal liburutegian, 19:00.

AUZOETAKO JAIK

Koixkarreko jaiak (ekainak 4).
Olakuako jaiak (ekainak 10, 11 eta 12). **Garagaltzako** jaiak (ekainak 24 eta 25).

GOGOAN HARTZEKOAK ●●●●●●●●●●

URGAIN EGUNA / Ekainak 4

11:00 Ibilaldia Urgain eskolako eraikin ezberdinetan zehar, Foruen plazatik irtenda; **13:00** Urgaitnxoren aurkezpena; **14:00** Bazkaria instituto aurrean, DJaren musikak girotuta; **16:30** Haurrentzako puzgarriak; **18:30** Tailerrak, kirol festa eta DJ festa.

ELKAR HEZI EGUNA / Ekainak 18

Goizean zehar tailerrak Foruen enparantzan: altxorraren bila mitologikoa, 'punk'a, bizikletak konpontzeko tailerra, dantza, eskulak.... Gero bazkaria kiroldegian, eta bazkalondoan kontzertuak, erromeria, kantaldia... Amaitzeko Batzi-2ko ikasleei omenaldia.

OÑATIKO NARRASTIAK. IKASTAROA ETA IRTEERA

Oñatiko narrastiei buruzko ikastaroa eta irteera (Araotz-Urrexola inguruan) egingo da **uztailaren 2an** Natur Eskolaren eskutik. Doan da. Izena emateko deitu 943716404 zenbakira.

OTEIZA. ESKULTURA KATALOGO ARRAZOITUA

> **EKAINAK 11**
GANDIAGA TOPAGUNEAN

Jorge Oteiza Fundazioak eskultorearen lanen inguruan argitaratu duen katalogo arrazoituaren aurkezpena egingo du Arantzazun (12:00) Txomin Badiola egileak eta Rafael Moneo fundazioko presidentek.

ODOL ATERALDIA

> **EKAINAK 10**
ekaineko odol ateraldia, ikastolako aretoan, 17:30-19:30

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Komikia

"Bazen behin ipuin bat"



CD Musika

"Vientos del este."



Haur liburuak

"Usborne first reading"



Filosofia liburua

"La resistencia íntima"



Antzerki liburua

"Mr. Señora"



Nekazaritza liburua

"Sembrar abonos verdes"

MERKATU TXIKIA

- > **Klase partikularrak** udan eta urte osoan. Esperientzia handia duen irakaslea. 653718030/943782843 (Jaione)
- > **Pisua** alokagai Kale Barria 54an (Etxaluze). 100m². 550€ hileko. Aukeran garaje itxia (50€/hileko) eta ganbara (30€/hileko). Deitu: 669 710 116.
- > **Makalena** elkartean plaza bakanteak daude. Inork bazkide izan nahi badu: makalean.k.j.b@gmail.com
- > **Donostain** San Roque auzoan (Easo plazatik gertu), apartamentua alokagai. Deitu 685730843 zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Ekainak 2, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Ekainak 3, 4, 5, 13, 14, 22 eta 23, eta uztailak 1, 2 eta 3.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58
Ekainak 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26, eta uztailak 4 eta 5.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28
Ekainak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28, eta uztailak 6 eta 7.



Oñatiri buruzko

JAKINGARRIAK

> Kanpaiei begira

Joan den igandean jardun betean ikusi eta, batez ere, entzun genituen kanpandorreko kanpaiak. Izan ere, bi kanpai handienak, 'Haundixak' edo 'Errepikak' bezala ezagutzen direnak, Korpus egunean bakarrik jotzen baitira.

Eta, hain justu, *Memorias de aquel Oñati* liburuan Juan Zubiak dioenez, orain dela ehun urte estreinatu ziren bi kanpai hauek. Guk, egiari zor, ezin izan dugu datu hau dokumentatu, baina bidea eman digu kanpandorreko ezkil ederrei buruz zertxobait ikasteko.

Guztira hamar kanpai daude Oñatiko kanpandorrean, bi multzotan banatuta. Goiko muturrean, erlojuari dagozkion hiru kanpaiak daude; haundi bat erdian, 108 zentimetroko diametroa daukana, orduak jotzeko, eta bi txiki alboetan, 59 eta 53 zm.-ko diametroarekin, laurdenetarako.

Beheko multzoan berriz, Elizari dagozkion zazpi kanpaiak daude. Horietako lau dira nagusiak. 'Lehenengo errepika' izenez ezaguna, plaza aldera ematen duena da. Dokumentuen arabera, 1520an ezarri zen kanpai hau lehenengo aldiz, baina gerrateren batean puskatu eta orain dela ehun bat urte ezarri zuten gaur egun dagoena, Laguardiatik ekarrita. Idiek tiratutako polea baten bidez jaso zuten gora. 157 zentimetroko diametroa du, eta 2.500 kiloko pisua, gutxi gora behera.

Bigarren handia edo errepika, Santa



Ana aldetik ikusten dena da. Mikel Aozaraza izenez ezagutzen da (149 zm.-ko diametroa). Jatorrizkoa 1688koa omen zen, eta orain dela urte gutxi berritu zuten. Zuazola instituto aldera ematen duena Ama Birjinaren kanpaia da (105 zm.-ko diametroa) eta San Juan aldera ematen duena berriz, Santa Barbararena (98 zm.). Azken bi hauek Mirandako Agel Pereak eginak dira, eta 1921 aldera jarri ziren.

Lau kanpai haundi hauen erdian, bi kanpai txiki daude, lurrean, astegun kanpaiak izenez ere ezagutzen direnak. Eta azkenik, ertz batean, Aingeru kanpaia izeneko kanpai txiki bat dago,



35 zm.-ko diametroa duena.

Ordua adierazteaz gain, funtzio berezi eta inportantea bete izan dute betidanik kanpaiek gure gizartean. Bada oraindik gogoan duenik, adibidez, nola egoten ziren gerra garaian seminaristak kanpandorrean hegazkinen bat noiz ikusiko zain kanpaiei eragiteko gertu.

Gaur egun ere, mezu jakin bat duten kanpai hotsak entzuten ditugu egunero, hala nola: 'Agonia' kanpaiak (gizonezkoa hiltzen denean 7, eta emakumea denean 5), 'Hil' kanpaiak, gorpua eliza sartzen denean, Mezatarako deia (egunero 19:15etan), Igandearen hasiera (larunbatetan 14:15etan), Angelusa egunero...

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Solmenda
- Hazlendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78.05 87 • email: inkorta@telefonos.es

HISTORIA TXATALAK

Aozaratzaren
margolana

>Korpuztiko prozesioan ikusi ahal izan genuen Aozaraza santuaren irudi berria izan dugu albiste azken egunotan. Orain arte erabili izan dena, Jesus Etxezarreta oñatiarrak egurrean egindakoa, santuaren jaiotetxeko kaperatxoan utziko dute, Lekunberri auzoan, eta prozesioan ateratzeko irudi arinagoa egin dute Madrilgo Complutense unibertsitateko ikasleek.

Irudi berria egiteko, parrokiako Aozarazaren aldareko margolana hartu dute eredu. Eta honek ere badu bere historia. Ezezaguna da egilea. Sorraluzen bizi zen Aozarazaren senide baten enkarguz egin zen, eta 1678an ekarri zuten parrokiara, hauxe eskatuz: inoiz beato edo santu izendatuz gero, toki egoki batean jar zezatela margolana. Adituen esanetan, esku trebeak izan ziren egilea.

Berezaio

> Jerardo Elortza

Nahiz eta gorabehera batzuk dituen, paraje lau eta egoki samarrean zabaltzen da Berezaio auzoaren beheko alde; baserri eta erai-kuntzarik gehienak inguru horretan kokatzen dira. Baina badu pendiz gogorrean eremu aldapatsua ere Aloñako mendihagirantz. Hor dago, besteak beste, Urzulo, Ubao errekaen iturburu oparo eta ospetsua. Arantzazu, Uribarri, Lezesarri eta Murgia auzoek inguratzen dute Berezaio.

Historian zehar lau ermita izan ditu auzo honek: **San Roman**, **Santa Lutzia**, **Santa Krutz** eta **San Jurgi**. Gaur egun bakarra geratzen da zutik: **Santa Lutzia**rena. Horregatik-edo, auzoari santa horren izenaz ere deitzen zaio. San Roman basiliza Korriuena baserria erre aurretik zegoen tokian aurkitzen zen eta **Urruman** bezala ezagutzen; Santa Krutz ermita Agerre baserriaren eta Santa Krutz errotaren artean kokatzen zen eta inguru hartako leku bati **Kurtze-muino** deritza orain ere; San Jurgi, berriz, han dago oraindik Tokillotik gora, baina baserri gisa soilik.

Dena den, ermitak desagertu arren, irudiak Santa Lutzia ekarri ziren. Eta hori ez da sarritan gertatu, Oñatiko beste ima-

Berezaioa oñatiarron pasealekurik politenetakoa da

jina batzuk betiko galdu baitira. Horrenbestez, Santa Lutzia basiliza museo txiki bat dela esan daiteke. Han daude, edozeinek ikusteko moduan, Santa Krutzeko santokristo handi eta apaina, San Jurgiko gerrari harro eta dotorea dragoia zapaltzen, eta San Romango Urrumanen iruditxo txiki eta xaharra. Hirurak Santa Lutzia bera baino interesgarriagoak, joskinen zaindariarena ez delako jatorrizkoa, askoz beranduegokoa baino.

Berezaio duen beste esparru bikain bat ermita ondoko **harizti ederra** dugu. Kaletik hain hurrean egonik, iturria eta mahaiak dituela, uda partean herritar asko erakartzen ditu bere gerizpera basotxo polit horrek. Auzoko etxe askoren aipamenak Erdi Arotik datozkigu, duela 550-600 urte ezkerro edo lehenagotik: adibidez, **Liazibar** (Liñantzibar); **Zelaibarrena** (Zelabarrena); **Lizarralde** (Lizarralde); **Bidabain** (Bidebain); **Gipuzetxe** (Kipuzetxe); **Arrizuriaga** (Artxuiaga); **Agirre** (Agerre); **Erzila** (Ertzilgoa); edota **Mendia** (Mendikoa).

Azkenengo hamarkadetan **industria-gune garrantzitsua** eraiki da Berezaio eta Lezesarri auzoen muga inguruan, hainbat lantegi eta biltegiarekin. Dena den, oraindik ere ondo gordetzen du Berezaio baserri-giroko paisaia ikusgarri eta lasaia. Hori dela eta, mugakide duen Murgia auzoarekin batera, **oñatiarron pasealekurik estimatuenetakoa** bilakatu da.

ESKAINITZA 90€
Berezia

EZKONTZETAN Utxe-Mundi

2016-2017 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Txiste kontari

Baxetorran gure Bilintx, Donostiako bertsolari famosua, Kale Barritik behera potraka, epel-epel egindda, hip, hip, eta hip! egiñaz. Eta egin xok trikitx behetik gora etorren beste lagun batekin. Harek ezagutu, eta esan txan:

- Zer moduz Bilintx?

Eta gure bertsolarixak erantzun:

- Ondoo Balantx!



Lotu honeik berbook euren esanguriakin

ETA ONTZIXAK III

- | | |
|---|-----------------------------|
| 1. Artesnia jeizteko ebalten zan zurezko ontzixa. | a. Eltze, -ia / Lapiko, -ua |
| 2. Ardaua, txakoliña edo sagardaua gordeteko ebalten dan zurezko ontzixa, lehenguak haritzezkuak edo kastaiñazkuak eta, orainguak, aluminiozkuak. | b. Tartera, -ia |
| 3. Janarixa gertaketako ebalten dan ontzixa, zaharrenak buztiñezkuak eta orainguak metalezkuak. | c. Txarri-kaldara, -ia |
| 4. Gelaatzutik txintxiliz egoten zan metalezko ontzi haundixa, kobrezkua jeneralian. | d. Kaiku, -ua |
| 5. Txarrixai jatekua gertatu eta eruateko ebalten zan metalezko ontzixa. | e. Barrika, -ia |
| 6. Eginddako janarixa eruateko ebalten dan ontzixa. | f. Pertza, -ia Kaldara, -ia |

Esaera zaharrak lotu, ezagutu eta ebali

- | | |
|------------------------------|--------------------------------|
| 1. Daguengan bonbon | a. oolduirik ez |
| 2. Etxiak zu etzau behinguan | b. urten barik euki orainddiok |
| 3. Dabillen harrixari | c. eta eztaguenian egon |
| 4. Juizioko hagiña | d. Jainkuaren legia |
| 5. Bakoitzari beria | e. azpixan harrapoko |

Nun dago?

Ia asmaitten dozuen nun dagozen sei itturri honeik:

- | | |
|-------------------------|--|
| 1. Txikinitturri | a. Arantzazutik gora Urbixarako bidian |
| 2. Aldailuze (Aldailus) | b. Atzeko kaleko goixenian |
| 3. Troska | c. Araozgo Aizkorbe auzuan |
| 4. Amabirjiñarena | d. Uribarri auzuan, Urtiagain eta Otadui Haundi artian. |
| 5. Faltegi | e. Torrealdetik gora fanda Lopioso baiño goratxuago. |
| 6. Itturritxo | f. Aurreko mendixan, Sarramendiko zelai barrenian, bidiaz goittik. |

EUSKERAZ EGOGI

*Esan xatei eta *esan notsain adizkixak

Esan xat adizkixaren analogixaz ***esan xatei** sortu eta entzuten da, eta **esan notsain**-en pareko ***esan notsain**, horrein forma zuzenak ebali biharrian, hau da, **esan dostet** eta **esan nosten**.

Ikusi degigun ejemplo batzuk akats horreik zuzenketako:

-Eskekoa etorri xat eta euro erdikua **emun xat**.

-Eskekuak etorri xat eta euro erdiko bana **emun dostet**.

-**Gaur** goizian agertu diranian maletak jasoteko **esan dostet**.

-**Atzo** goizian agertu ziranian maletak jasoteko **esan nosten**.

-**Neskatilliari** jerseixa **ekarri xat** eta **mutikuai** fraka pare bana **ekarri dostet**.

-**Gaur** gabian Hiru Txarritxuen ipuiña **kontau bihar dostet umiai**, atzo Txanogorritxorena **kontau nosten-eta**.

-Nun dago?
1f, 2e, 3d, 4a, 5c, 6b

-Esaera zaharrak lotu
1c, 2e, 3a, 4b, 5d

-Lotu honeik berbook euren esangurarekin
1d, 2e, 3a, 4f, 5c, 6b

ERANTZUNAK



Torreauzoko Elazarra

Holakotxe itxuria eukan, orain dala hirurogei bat urterarte, San Pedro edo Torreauzoko **Elazarra** baserrixak. Indalezio Ojaguren, Eibarreko erretratista famauak, 1930 aldera ataratako argazki honetan badira elementu interesgarriak: esaterako, harlosaz egindako **larrain zabala**; **burdi klasikua**, zurezko tririnka tringuaz eta burdiñazko llantaz; **ira-pillia** eta **abar luziak** horma kontran; txirikordautako urritzez moldautako **hesixa** ezkerraldian; edota egurrezko **mahats-parriaren** hasieria erztian.

Etxe honetako bizilagunen aittamenak aspaldikuak dittugu: **Araotz-Lazarraga** familixa ospetsukuak ziran; auzo bereko Lazarraga eta Garibaitarrekin batera ganboatarren bandoko buru nagusixenetakuak Erdi Aruan eta baitta geruago be. **Etxeaundi** (edo Etxandi, gure gurasuak esaten euen moduan) zan Lazarragatarren sortetxia; **Elazarra**, Araotz-Lazarragatarrena; eta **Garibaiko Torria**, Lazarraga-Garibaitarrena. Alkarren senidiak ziran eta hiruren artian klan indartsua sortzen euen. Onduan daguen baserrixari be Lazarraga Azpikua esaten xakon sasue batian.

Jatorrizko etxiak torretxiak izango ziran, seguruenik, eta gerora **baserri-tankeria** emun otsain. Garibaiko Torriak gorde dau zahar itxura gehixentsuen. Leiñu horreittakuak Oñatiko kalera eta beste herri batzuetara zabaldu ziran XV-XVI. gizaldittik aurrera. Araotz-Lazarragatarren **bi egoitza** ekuain kalia: **bata Patrue kalia eta bestia plazan**, orain Pago Uso alkartia daguen inguruan; Patrue kalekuak zutik irauten dau eta etxe-ertzian Elazarrako baserrixan daguen armarritzarraren antzerakua dako; plazakua palazio dotoria ei zan, jesuitten kolejixua eta beste gauza asko egon ziran bertan, eta 1850 aldera eretsi euen, plaza nagusi barrixa egin zanian.

Araotz-Lazarragatar jauntxuak kalerako bidia hartu baeuen be, baserri moduan jarraitu euen Elazarrak. **Han bizi izan dira familixa horretako beste adar batzuetakuak** jeneraziño askotan. Hori bai, abizenak aldatuaz fan dira azkenengo gizaldittan: **Araotz, Otalora, Maiztegi, Elortza** eta **Irizar**, bestiak beste. Fotografixa haundixan agiri dan gizakumia **Frantzisko Elortza** da, **Patxi Elazarra**; burtiunian jasarritta daguen mutikotxua **Juanito Oñate** (?) da, baserri horretan hazittako donostiarra eta familixa tarte-kua zan; eta erdiko balkoian ikusten dan emakumia **Maria Elortza** izan leike, Patxiren arrebia.

J. E.



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS



BADAKIZU ZERK DESBERDINTZEN GAITUEN?



Merkatuko aseguru konpainia onenekin egiten dugu lan, aseguru mota guztiak landuz: bizitza, heriotza, osasuna, automobilak, etxeak... baita enpresa arloa ere.

ZEINTZUK DIRA GUREKIN LAN EGITEAREN ABANTAILAK?



INDEPENDENTEAK GARA

Edozein aseguru-etxerekin lan egin dezakegu. Ez dugu konpainiarik ordezkatzeko.



EROSOTASUNA

Gu gara zure kontaktua edozein beharren aurrean, zure aseguru-etxea edozein delarik.



AURREZPEN EKONOMIKOA

Aseguru guztiak aztertzen ditugu eta kobertura/prezio onenak eskaintzen dizkizugu.



GERTUTASUNA

Zu zara gure bezera eta zure interesak dira gure lehentasuna.



COINBROKER

OÑATI

ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzoko Ama Kalea, 9
20560 Oñati / Gipuzkoa



943 089006



www.gipuzkoa.coinbroker.eus



oinati@coinbroker.eus